

# ttipi ttapa

414


2005eko urtarrilaren 19a • XXVI. urtea



## Komertzioari buruz ikerketa egin da

04

Bertizko Merkatarien Elkartearen bezeroek gure herrietan erosteko zenbait ekimen egiten ari da. Hauen iritzia jakiteko inkesta egin berri dute.



## Jon Apezetxeak 17 urterekin debuta

29

Urtarrilaren 30ean Asperekin debutatuko du Jon Apezetxea goizuetarrak. Bigarren mailako binakako txapelketa jokatzuz hasiko da 17 urteko aurrelaria.



03

MIREN ERRANDONEA BERATARRA

# Ur-hornidura proiektuak gauzatu ditu Hondurasen



*Altzari klasikoak  
nahiz modernoak*



ERROTA, 13 • IRAETAKO INDUSTRIALDEA • 20740 ZESTOA  
Tfnoa 943 14 75 32 • Fax 943 14 78 65 • [www.zelaitxiki.com](http://www.zelaitxiki.com)

ZELAI - TXIKI

ZURGINDEGIA



*Nahi duzun neurrira eta estilora; gaztaina, haritza, inxaurra, gerozia*

## SUNBILLAN ETXEBIZITZAK SALGAI

**BELURRA**  
Promociones y Construcciones

**2 edo 3 logeletako  
etxebizitzak, atikoak,  
garajeak eta bajeak**



• IGERILEKUA,  
BIDASOA IBAIA  
ETA BIDEGORRIAREN  
ONDOAN

• Irunetik 20 minutura  
• Iruñetik 30 minutura

Lekueder karrikan **948 450 188 - 638 845 560**



## DATUAK...

- Miren Errandoneak, Barako gazteak, sei hilabete iragan ditu Hondurasen, bortz herrixkatan ur sareak hobetzen edo eraikitzen.
- Geólogos del Mundo Gobernuz Kanpoko Erakundearekin egindako bidaiak hiru holburu zituen: lan egitea, bortako jendea laguntzea eta herrialdea ezagutzea.
- Honduraseko hiri handietan bortizkeriarekin arazoak baldin badituzte ere, Miren agondako eskualdea lasaia omen da.



Miren ERRANDONEA *Geólogos del Mundo* taldeko beratarra

## «Honduraseko bortz herritan ur hornidura arazoak moldatu ditugu»

Xan HARRIAGUE

Zergatik aukeratu zenuen Honduras?

Egia erran ez zen hautu bat izan. Beraz Geologoa naiz, eta kolegioak badiu gobernuz kanpoko erakunde bat eta ailegatu zitzaidan lan eskaintza, Hondurasera joateko. Ailegatu bezain laster, baitez erran nuen eta hara joan nintzen. Herri horretatik ez nekien ia ia deus ere ez, beraz, gogoa eman zidan.

Gaur egun nolakoa da Honduraseko egoera? Nola ikusi duzu herria?

Ni batez ere herrixka batean bizitu naiz. Bi mundu dira, bat hiria eta bertze herrixkak. Hiri mundua gutti ezaugu dut. Herrixketan, gu batez ere egon garen lekuan, suertea izan dugu. Herri lasaia da. Hemengo edozein herri bezalakoa. 40.000 biztanle inguru ditu baina hemengo 5.000 jendeko herri baten itxura du. Azpiegitura gutti dute. Hori da, behar bada, ezberdintasun handiena. Hiriei dagokionez, hemen handik aditzen dena da bortitza dela, eta egia da. Hiri handietan arazo izugarria dute ho-

«Etxe guzietan uraren giltza bat dute. Ez da hemen bezala, Suk etxean baditugu ez dakit zenbat giltza. Hori bakarrik bat dute, aska moduko ur biltegi tiki batokian, inhenago hensen bezala»

rekin baina herrixketan, eta batez ere gu egon garen lekuan oso lasaia da. Zergatik hautatu zinuen hemendik kanpo lan egitea, lana behar zinu-lako edo elkartasunez?

Pixka bat denetatik. Eskaini zidaten nire lanarekin zer ikusia duen zerbait egitea, eta horrelako aukerak ez dira egunero suertatzen. Gustukoa duzun lanean aritzen zara, bertzeak laguntzen dituzu eta denbora berean herrialde bat ezagutzeko aukera ematen dizute. Ez nuen gehiegi pentsatu.

Zein zen zure lana han?

Gure lana ez zen herrian bertan finkatzen, baizik eta hortik ordu erdi batera ziren herrixka batzuetan. Horietako lautuan ura bazuten baina ez zen aski ailegatzeko denentzako, Beraz

arazo hori konpondu behar izan ginuen. Bertze batean ez zuten sekulan urik izan. Laburbiltzeko, guk egin duguna da duela 11 urte Europar Batasunaren dirulaguntzarekin egindako putzu batetik ura biltegi batera eraman eta hortik bost herri hauetan banatu. Horrek erran nahi du garbitu behar izan ginuela, bonbak jarri eta bertze zenbait lan.

Berriz prest izanzen zinateke horrelako bertze proiektu batean sartzeko?

Agian Hondurasera ez, pixka bat ezaugu dudalako. Bertze herrialde batera ... ailegatzeko bazait eskaera pentsatuko dut. Aitzinekoan erabakia hartu nuen bizpahiru ordutan. Oraingon bertze bat etortzen bazait horrelako batean erabakiko dut joan ala ez.

Aukera bazenu zer herrialde hautatuko zenuke?

Hizkuntzaren aldetik Ertamerika. Nicaragua pixka bat ezaugu nuen eta gustatu zitzaidan, bestenez salto handiagoa eman eta Afrikarantz. Egia erran, edozein lekuetara joateko prest nago.





UZTARDI ARIZKUN

Merkatariak ahalegin berezia egiten ari dira beraien negozioei bultzada berri bat emateko. Argazkian, joan den urtean Donezteben egindako solasaldi batean ageri dira batzuk.

ESKUALDEKO KOMERTZIOA SENDOTZEKO SOLUZIO BILA

## Bezeroen premiei erantzuteko ikerketa egin du Bertizko Merkatarik Elkartek

**Bertizko Partzuergo Turistikoaren barnean dagoen Merkatarik Elkartek interes berezia du eskualdeko komertzioen bezeroek zein premia eta ikuspuntu duten jakiteko. Norretarako Marketing ikastaroa egin zuten Bertizen. Ikastaroaren lehen egunean, Baztan-Bidasoako komertzioen arazo nagusietako bat zehaztu zuten: bezeroek bertze lekutara ihes egiten dute erosketak egitera, batzuetan kilometre aunitz eginaz, eskualdeko dendetan egin beharrean. Hau ikusita, inguruaren azterketa sakona egiteko eta eskualdeko arazo berri jakiteko Marketing plan sakonagoa egitea erabaki zuten. Honela, merkatariek dituzten mehatxuen eta aitzinara egiteko aukeren berri jakin dute.**

**Aitor AROTZENA**

Lan honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, bertako bizilagunei eskualdeko komertzioa erakargaria egiteko modua bilatzea eta bertzetik, Iruña, Bilbo, Donostia edo Lapurdiko ber-

tze merkataritza guneetako bezeroak erakartzea. Izan ere, hauek ere bertziko bezeroak dira, baina gaurko egunean, inguru turistikoak izan arren, ez dute Baztan-Bidasoaldeko komertzioan inolako atraktiborik somatzen.

lazgo iraila eta urria 123 inkesta egin ziren, Elizondo, Doneztebe, Bera, Lesaka, Iruña, Erratzu, Arizkun, Arraioz eta Elbeten. Elkarriketa gehienak aurrez aurre egin ziren eta Beran, Udalaren 012 telefonoaren bidez. Inkesta gehienak Beran eta Elizondon egin ziren (%34 eta %32), Lesakan %19, Donezteben %5 eta gainerako herrietan %11. Erosle gehienak horrela izanik, galdetutakoentzatik hiru emakumeak izan ziren.

Ondorio nagusiei dagokienez, erraten ahal da galdetutako bezero gehienek erosketa gehienak eskualdeko dendetan egiten dituztela. Harategia, argazkigintza eta optika, prentsa, liburuak eta estankoko gaiak dira herrian bertan gehien erosten direnak. Herrikan kanpo moda eta osagarriak, oinetakoak eta kirol materiala eros-



ten da gehien bat eta gehienek Iruña eta Donostia aldera jotzen dute. Herritik kanpo erosteko arrazoi nagusia komertzio aukera gehiago topatzea da bezeroentzat. Halere, herriko komertzioak ere bezeroen gustoko dira eta erdiak baino guttiagok, %42k, uste du bertze lekuetan baino garestiagoak direla. Bertako dendariak eskaintzen duten arreta bertze lekuetakoa baino hobea dela eta hurbileko dendatan erostea errazagoa dela uste dute bezero gehienek. Gure herrietako komertzioak modernizatuak daudela uste baldin badute ere, lau bezeroetatik batek normalki arazoak izaten ditu txartelarekin ordaintzeko orduan. Merkatarik Elkartek kezka hartu du datu hau. «*gaurko egunean komertzio guzietan onartu behar baikenuke txartelak*». Inkestan agerienez, herrietan autoak aparkatzeko lekua falta da, bezeroen %65arentzat hau arazoa baita.

#### UDAL ETA PARTZUERGIOTIK LAGUNTZA GUTTI

Merkatarien ustez, udalek eta Bertiz Partzuergo Turistikotik laguntza gutti ematen zaie komertzioei. Alde horretatik, Partzuergoaren banean zegoen Bertizko Merkatarik Elkarteko zuzendaritza batzordeak oso-osorik kargua utzi zuen joan den urte akabailan eta ez da berrituko. Javier Leiza batzorde kide ohiak aipatu digunez, «*turismoa bultzatzen da, baina guri turismoak gutti ematen digu. Gehienez janaridenda edo okindegiek somatzen dute, baina horientzat ere salmentaren %3a bertzerik ez da. Beraz, gure bidea hartu eta elkarte propioak egiteko asmoak badaude han eta hemen*».

## «DENDARIK GABEKO HERRIAK, HERRI HILAK DIRA»



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Abenduaren 14an, Komertzio Ttikietan Zerbitzuaren Kalitatea ziurtatzen duen UNE-17500-1 araua banatu zuen Gobernuak Nafarroako 62 denderi. Tartean, eskualdeko hiru komertzioak jaso zuten ziurtagiri hori: Berako Bortzirriak etxetresna dendak eta Doneztebeko Casa Ostizek eta Mari Cruz Ientzeriak.

Eskualdean gero eta denda guttiago daudela jakina da. Baita eskualdeko jendeak kanpoan gero eta gehiago erosten duela. **Leitza-Baztan-Bortzirriak** eremuko datuei begiratuz, 2003an 16,8 milioi euro gastatu ziren eskualdetik kanpo; hau da, eskualdean zentratu zitzaion gastu osoaren %37a. Horrela ageri zen Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbararen enkarguz CIEsek egindako ikerketan. Kapital-ihesarik handiena **Leitzan** gerta-

tu zen, leitzarrek egindako 9,6 milioi euroko gastuaren erdia herritik kanpo egin baitzuten. **Baztan**darrek hirutik bat herritik kanpo gastatu zuten, 13,8 milioi euroko gastutik 4,6 milioi. **Bortzirietan**, azkenik, 21,9 milioi euroko gastua zentratu zen 2003an, eta kopuru horretatik 7 milioi euro (%32) kanpoan gastatu zen, Gipuzkoako auzo-herrietan nagusiki.

Joera horri buelta emateko asmoz dabilta eskualdeko komertzioentzatek, dendarik gabeko

herriak herri hilak direlaokan. Javier Leizaren ustez, horren adibide garbia **Baiona** da: «*Duela 15-20 urte izugarriko bizia zuen. Orain dena herritik kanpora ateri da, zentro komertzial aunitz egin dituzte kanpoaldean eta orain hiriburua hila dago. Horregatik, diru pila bat gastatzen ari dira komertzioa berriz ere herrigunera erakartzeko. Hortxe hurbil dugu adibidea eta horretatik ikasi egin behar dugu, hemen gauza bera gerta ez dadin*».



#### Javier LEIZA Merkatarik Elkartekoa

«Konpetitiboak izateko gure dendak hobetu eta berritu behar ditugu»

Zer ondorio atera dituzue egin duzuen inkestatik?

Argi ikusten da gauza bat: hemen zerbait ez badago jendea kanpora joaten da, baina hemen erostea nahiago dute, etxetik hurbil. Gremio batzuetan aukera gehiago dute kanpoan, baina hemengo tratu hobea dela eta hori aunitz baloratzen dute. Elkar ezagutzen dugu eta gauza

bat aldatzeko edo moldatzeko, errazagoa da hemen.

Datuak eta ondorioak ikusita, aitzinera begira zerbait egiteko asmorik baduzue?

Udalek urbanizazio lanak egiten dituztenean, kontuan hartu behar duzue komertzioentzate lokalak. Ez dakit zer politika segitu behar den, baina lokal horiek merkeagoak izan behar duzue. Nafarroako Gobernutik badira dirulagun-

tzak zentro komertzial irekiak deitutakoak sustatzeko, komertzioak dituzten kaleak moldatu eta bultzatzen dituzte.

Bera eta Behobia arteko bidea moldatzea mesederako edo kalterako izanen da zuentzat?

Orain, egiten duten bitartean, traba izanen da eta hori probetu behar dugu. Behin egin dagoenean, bi aldeak izanen ditu txanponak; joatea errazagoa izanen da, baina honat etortzea ere bai. Gure komertzioak hobetu eta modernizatu behar ditugu, formazioa...



Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa

Presidentea: Pello Apeztegui

Kudeatzailea: Joxemai Ingoien

Zuzendaria: Aitor Arotzena

Publizitatea: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia

Berriemaiak: Esteban Arotzena,

Juana Mari Salzar, Kontzi Klaber, Pello

Zestau, Arkaitz Mundeia, Franck De-

losor, Margari Etxenika, Koro Irazoki,

Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine

eta Krispin, Angela eta Xamo,

Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Jo-

seba Olagarai, Nerea Miteletorena,

Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ain-

hoa Irazoki, Rakel Gorri, Rakel Ami-

go, Irabe Kontsumitzaileen Ekartea...

Imprimategia: Gertu

Erakunde laguntzaileak: Bera, Leiz-

tza, Goizuetza, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpere-

ko udalak, Zugarramurdiako Akelarre

elkartea, Bortziriako Euskara Man-

komunitatea, Mamerrekako Zerbitzu

Mankomunitatea...

...

#### Harpidetza sarriak:

Hago Euskal Herria	30 €
España	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	100 €
Baztan, Urdazubi, Mamerreka eta Leizta	25 €



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jauriaritzako Kultura Sailaren  
laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Errege Eguneko Elizondoko batzarrari buruz

Santiago Aldako Aleman, elizondarra naizen neurrian, 1997 eta 1998an bertako alkate-juratua izana, gaur egun Baztan Udaletxeko zinegotzia naizela, Elizondoko Herriak pasaden Errege egunean buruturiko Batzarrak komunikabideetan, bereziki idatzizkoetan, izandako eragina dela aipaturiko zenbait aferaz hausnarketa egitea bidezkoa iruditzen zait, ilundutako alderdiak argitze asmoz.

2005eko Elizondoko diru-kontuak Batzarrean aurkeztean azaldu ziren tirabirak, bilera zuzentzen zuenak luizatutako salaketa larriak behar bezala egiaztatze gauza ere izan ez zela. Harrigarria benetan egungo Elizondoko alkate-juratua den Rafael Olaizola jaunak idatzi hau sinatzen duen horren 1997 eta 1998an alkatetzaren kudeaketa ekonomikoa behin eta berriro iluntzeko agertzen duen nahi tematia, orduan emandako emaitza ekonomikoa egiazkoa ez zela leporatuz, benetako zuloa estali zela erranez. Hau guztia egia ez dela ikusi ahal izateko herriko artiboak, dokumentazioa eta diru-kontuak aztertzea bertzerik ez dago, aginte haren bukaeran pezetetan milioi bat baino gehiago gelditu baitzen herriko banku kontuetan. Gisa berean, egiari uko egitea da kanposantuko kontutik herriko kontura Juratu aunitzek dirua pasatzeko beharra zuzenki kitatu ez zela erratea. Garai hartan ezinbertzekoa zen Ferie-tako diru sarrera bildu ondoren diru hori bueltatzeko ohitura zegoen, nik dakidala Juratu bakar batek ere, nik behintzat ez, ez zituen, Rafael Olaizolak erran bezala, modu ez zuzen horretan herriko diru-kontuak itxi.

Jarrera temati hori are eta harrigarriagoa da kargua utzi nuenetik Elizondok bertze lau alkate izan dituela ikusita, baita ere batzarrak aztertutako 2005eko diru-kontuetan garai hartako inolako aipamenik egiten ez dela ikusirik, eta bai, ordea, aitzineko le-

gealdiko zorraz gain 2005eko defizita 9.162,17 eurokoa dela ikusita, inoi ezagutu dugun handiena. Kudeaketaren emaitza hori ez da ez lagungarria Rafael Olaizolak kargua hartzerakoan agertutako helburua lortzeko, hau da, bere aitzineko legegaldian sorturiko diru-zuloa estaltzea. Hori lortzea zaila izanen da 2005ean oraindik ordaindu gabe dauden harmailak erosteko moduko erabakiekin, aitzinetik Udaletxeak horretarako dirua ote duen egiaztatu gabe hartutako erabakia eta ondotik Udaletxeari faktura pasatuz ordainduko duelakoan.

Adibide honek lan egiteko modu bat bertzerik ez du erakusten, Rafael Olaizola bera kargudun izan zen aitzineko legegalditik heldu den lana egiteko estiloa, herriko aferetan elizondarren laguntza ia desagertzerak ekarri duena. Aspaldiko laguntzaileek lana egiteari utzi diote, kanposantuko kudeaketan, udazkeneko Baztango ferietan. Santiotan, hondar hamarkadetan herriko errebestak bezala hartu ditugun Txokotoko bestetan, bertzeak bertze. Gaur egungo kargudun taldea hain txikia izatean nire iritzi hau garbi berresten du. Rafa, honetaz hausnartzea komeni zaizu, bertzeek ere akaso ardura badugu, zu zeuk ere bai, zalantzarik gabe.

Batzarreko bertze eztabaidagala ere Udala eta Herriaren arteko harremana izan zen. Udal zinegotzia izan den baten ahotik erranda harrigarria berriro ere Elizondoko Udaletxean baztertuta dagoela erratea. Elizondok bidezkoak deritzonek eskaerak zaila dute erabateko aldeko erantzuna jasotzea hamabortz herri bere baitan dituen Udaletxe batetik. Errate baterako, Elizondoko ortzegunero gauzatzen den Baztango merkatuaren diru-tasen aldarrikapena. Gainontzeko Herriek ere gustukoa izango zuten diru-sarrera hori, are gehiago merkatu hori antolatzeak ekartzen dituen gastuak bere gain hartu gabe.

Udaletxeak herriak laguntzeko irizpideak ez izatea leporatzen denean ere ez da egia erraten. Irizpide horiek izan badaude, zu

zeu udal zinegotzia zinen garaian bezala. Herrietako bestetarako dirua banatzen da, Juratua izateak sortzen dituen gastuei diru-laguntza pertsonala eman, Herrietako Batzar aretoak konpontzeko urteroko diru-saila, eta egoitzetan nahiz pistetan bertitze lanak egiteko beharrezkoa den materiala ordainduz, bertzeak bertze. Iritzi errespetagarria da banatzen den dirua eskasa delakoan irizpide horiek gustukoak ez izatea, baina gaur egun gero eta ugariagoak diren beharrezkoak asetzeko dagoen baliabideen urtasunaren errealitatearekin bat heldu dira. Horretaz gain Juratu talde batek adostu beharreko proposamenen arabera banatze-irizpidea eguneratzeko aukera ere badago.

Berriki burutu den Santiago karrikaren berrikuntza moduko aferetan Udaletxeak Elizondoko Herriaren aholkua eskatzen ez duela ere salatzen duzu, udal zinegotzia zinen garaian onartu zen proiektua aski ongi ezagutzen duzun arren.

Azkenik, Udaletxean pertsona non grata zarela diozu, eta hori ez da horrela. Egungo Udal Gobernuaren ezaugarri ukaezina da baztandarrak behar bezala hartzea, are gehiago Herrietako Alkate-Juratuak, Batzarretako ordezkariak diren neurrian. Udaletxe eta Elizondoko Herriaren arteko harremanak samurtu behar ditugu, solastera etorri eta idatzia nahiz eskaerak soilik aurkezteko duzun ohitura baztertu. Ez duzu, erraten duzun gisara, lerroan zain egon beharko; telefonoz deitu eta hitzordua adostuko dugu. Ez duzu, erraten duzun gisara, eskean etorri beharko, proposamen zehatzak landu eta aurrekontuetan bildu ahal izateko tenorez aztertuko ditugu.

Zure zain gaude, Udaletxea zain daukazu, edo nahiago baduzu, denon Udaletxera etortzeko konbidatuta zaude.

Santiago Aldako Aleman.

Elizondo,

2006ko ilbeltzaren 10a



• IRAKURLEAK MINTZO •

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •

**Arantzako Udalaren prentsa oharraren inguruan**

Harrituak gaude Arantzako «Udalak» herriko gazteekin duen kezka ikusita. Arantzako PNVren hitzetan, Bordatxo diskotekan gertatutakoaren itzal, eskualdeko gazteak aisialdi leku eta lantokirik gabe gelditu omen gara. Bordatxo zen PNVk gazteentzat duen aisialdi eskaintza? Droga zirkulazioa, eraso sexistak, lan baldintza eskasak...

Erasotuak eta kalte-etuak kontuan hartzen dituzte «gure alkate jaunak», haien artean gazteak omen. Ez dugu hilabete aunitz gibelera egin behar «Udalak» gazteei jarritako oztipoez oroitzeko; herriko bestetan txoznarekin gertatutakoa, Arantza Rock egunean argindarrarekin nahiz gure materiala gordetzen dugun lokalarekin izandako gorabeherak, etab. Herriko harat-honatak ez dira gure «ordezkarien» aipagai inongo komuni-

kabidetan; gazteei ukatutako laguntza ezezik, jarritako oztipoak ere ez dira inon ageri. Hitz hauen bidez garbi utzi nahi dugula ez garela gure «udalaren» kezka iturri nagusia eta ez dugula inondik ere onartzen euren iburakeria.

**Arantzako Gazte Asanblada.**

**Etxebizitza arazoak, lan baldintza kaxkarrak, errepresioa...**

Gaur egun Euskal Herriko gazteok bizi dugun egoera benetan larria da, gazteon aurka ematen den eskubide urraketa ikaragarria da. Honetaz jabetzeko azken urte hauetako datuetan errepresetazioa besterik ez daukagu: 192 gazte atxilotuak, 51 gazte hilak lan istripuetan, kontratuen %5-a bakarrik da finkoa, EAE-n 321 emakume

izan dira erasotuak, etxebizitzaren alokaruen batzbestekoa 711€, gazteon soldaten batzbestekoa 720€, 32 gaztek tortura salaketa latzak egin dituzte, 300 gazte izan dira epaituak, ...

Egoera honek, gure gutxieneko eskubide hauen jabe izateko antolatuta eta borrokatuz behartzen gaitu, badakigulako borrokaren bidez, pertsona ta gazte anitzez osatutako herri askea egitea posible izango dugula. Eta soilik Euskal Herria bere buruaren jabe denenean, errespetatu ko direla gure eskubideak!! **BORROKAZ ASKE BIZIZ, INDEPENDENTZIA!**

**Goizuetako SEGI**



BERRIA 2005-12-20

«Mikrobargi bat dago hemen, beste leku batzuetan ez dagoena. Lainoak ekartzen baitu. Hemengo egunak ez du goratzen eguerdia arte, goiz osoa ematen du lainotua. Eta horrek ekartzen du argi berezi bat. Argi zuri bat. Bestetik, mendietako biribilak, bertikaleko arboleak zatikatzen dituztenak... Ez duzu gauza handirik asmatu behar konposizio onak egiteko. Eta, hemen jende gutxi bizi da, eta jendea asko aspertzen da».

**Xabier SOUBELET**  
Arizkungo margolaria  
BERRIA 2005-12-20

«Frantsesek ezin badute tabako kartoiak erosi, ez dira bertze gauzak erostera etorriko ezta jateleketan bazkaltzera ere. Loge berriak donean eraginen du». «Tabakoa makinetan salduko da eta txanpoien ordean, fitxak erabili beharko dituzte. Guk fitxak saltzen ahal ditugu, orduan, zergatik ezin dugu tabakoa zuzenean saldu? Ez du zentzu handirik».

**Ignacio IRAZOKI**  
Ibardin Merkataria  
Elkarteko presidentea  
D.Navarra 2005-12-28

hango emp. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

**XERATZEA eta LANTZEA**

Ameskorak	Tamienak
Argiak	Ertzak
Ureko emakak	Makak
Lakak	Zakak
Abak	Wakak
Arakak	Makak
Plakak	

Ungarizkoak: Magyarok  
Estatuak: Estatuak

**ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK**

- PINTURAK
- DROGERIA
- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guztiak

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Profesionalentzat prezio berezia

**PINTURAS PIKABEA MOLINERO**

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • Tel. 948 630 240 • Mug. 627 622 333 • BERA





## LANA

# Langabeziak goiti egin zuen eskualdean joan den urtean

677 langabetuk izena emana zuten Doneztebeko bulegoan abenduan

## ttipi-ttapa

Nafarroan joan den urtean langabeziak behi egin badu ere, gure eskualdean ez da horrela izan. Herrialde osoan, lana bilatzen zutenen kopurua %1,70 jaitsi da. Abenduaren 31n 22.292 ziren Enplegu Bulegoetan izena emana zutenak, 13.288 emakume eta 9.004 gizon. Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietan berriz, langabeziak goiti egin zuen 2005ean. Urte hasieran 624 lagunek lana bilatzen zuten eta urteaz har egunean 677 ziren Doneztebeko enplegu bulegoan izena emana zutenak. Urte osoan gorabeherak izan badira ere, hamabi hilabetez 53 lagun gehiago lanik gabe gelditu ziren eskualdean. Orohar, langabeziak %8,5az goiti egin du. Horien artean 343 emakumeak dira eta 334 gizonezkoak. Adinari dagokionez, 25 urtez behetik 78 langabetu daude eta gai-



Argandoña, N.G.

Langabetuen erdia baino gehiago zerbitzuen arlokoa da. 369 dira arlo honetan lanik gabe daudenak eta 210 industria arloan.

nerakoak 25 urtez goitikoak dira. Sektoreka, zerbitzuen arloan daude langabetuen erdia baino gehiago, 369; industrian 210 langabetu daude, 62 eraikuntzan, 17 nekazaritzan eta aitzinetik lan egin gabekoak 19 dira. Azaroarekin konparatuz, gurea da Nafarroa osoan langabeziaren gorakadarik

handiena jasan duen eskualdea, %7,46 igo baita.

#### LANGABETU GUTTIEN APIRILEAN, GEHIEN ABENDUAN

2005. urtearen errepasoa eginez, langabeziaren ehuneko apalena udaberrian izan zen, apirilean hain zuzen, 564 lagunek lana bila-

tzen zutenean. Gorena berriz, abenduan izan da, 677 lagun langabezian zirenean.

Urtarrilean 642 langabetu zeuden, otsailean 659, martxoan 632, apirilean 564, maiatzean 675, ekainean 631, uztailen 645, abuztuan 633, irailean 596, urrian 599, azaroan 630 eta abenduan 677.

## Ostalaritzan eta ostatu ematen trebatzeko tailerra hasi da Lekarozen

## ttipi-ttapa

Baztan-Bidasoaldean ostatu ematen eta ostalaritzan trebatzeko enplegu tailerren inaugurazioa egin zen urtarrilaren 12an. Lekarozen Nafarroako Kiroi eta Gaztediaren Institutuak daukan aterpean egin zen ekitaldian, Jose Javier Armendariz Nafarroako Gobernuako Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko kontseilaria, Jose Javier Esparza Cedema-Garalur elkarteko presidentea eta Maria Isabel Garcia Malo, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendaria izan ziren. Enplegu tailer hauek 25 urtez goitiko langabetuei zuzenduak daude. Sei hilabetez formakuntza profesionala eta praktikoa jasoko dute, gero lan merkatuan sartzea errazteko.

**bortzirUDI**  
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK - KAMPESTAT - RISERAK - DISKEROAK (Mali Azca mark - Balmesok)  
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORETAN, TIRU-BELTZEAN - PLANDAK  
ENKADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEKTEGIA - BULEGO MATERIALA  
DISEÑU GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - ERROTULOAK - IMPRENTA

Etegora, 26 Eskainetako Beha 0 - BERA - Tel Fax: 948 631 521

**SAROB** SANDERS pentsuak  
okindegia

Etegora, 41 - Tel: 948 630 899 - BERA

**Alberto RETEGI**  
Alzale, 17 BERA ☎ 948 630 763

abokatua

**Lanchas**

PARKETAK - TARIKAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK  
ESTALDURA OROKORRIAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

**LABE-ZAR**  
☎ 948631076 • BERA

**LAJINE - LOZTEKIN**

Alzale, 10-948630796 - BERA



**BERA**

## Gure Txokoako txirrindularitza eskolak zenbait ekitaldi prest ditu

Raul Iglesias donostiarra izanen da kultur koordinatzaile berria

**Amaia eta Ainhoa**

Gure Txokoa Elkar-  
teko Txirrindularitza Es-  
kolak hainbat ekitaldi an-  
tolatuko ditu aurtengo-  
an. Urtarrilaren 7an izan  
zen lehendabiziko saioa  
eta heldu diren hiru hi-  
labetarako ekitaldiak  
ere antolatu dituzte. Le-  
henengo saioan, lamo-  
teneako aparkalekutik  
hasita, Alkaiaga indus-  
trialdearaino luzatzen  
zen ibilbidea egin zuten  
eta behin harat iritsita,  
Ginkanan aritu ziren.  
Bertze ibilbide eta ikas-  
taldi ezberdinak eman-  
en dituzte, adibidez, bi-  
zikleta nola erabili, no-  
la entretenitu, seguru-  
tasun neurriak, etab. Eki-  
mena arrakastatsua ba-  
da urte guzian zehar lu-  
zatuko da eta nahi izan-  
ez gero haurrari da-  
gokion mailan txapel-  
ketetan parte hartzeko  
aukera emanen zaio.

**Kultur Agenda**

Hainbat kultur ekital-  
di antolatu dira urteari  
hasiera ona emateko.  
Nafarroa Oinez 06k an-  
tolatuta, urtarrilaren  
22an, igandean, Kuku-  
biltxo Taldearen Argitxo  
eta Dir-Dir antzeslana  
ikusitzaile izanen da Kul-  
tur Etxean 17:00etan.  
Urtarrilaren 27an, Aita-



ANTZESLANA

Kukubiltxo taldeak «Argitxo eta Dir-dir» antzeslana eskainiko du urtarrila-  
ren 22an Kultur Etxean, Nafarroa Oinez 06k antolatuta. Leku berean, urta-  
rrilaren 23tik 29ra, Andersenek idatzitako ipuinetan oinarritutako erakuske-  
ta ere izanen da leku berean, Liburutegiak antolatuta.

na Balentin haurrentza-  
ko ipuin kontalaria izan-  
en da liburutegian eta  
Andersenek ipuinak  
kontatuko dizkie ttikiei  
18:00etatik aintzineran.  
Ondoren, egun eta toki  
berean baina 20:30etan,  
Espidobaita Elkar-  
teko antolatutako liburu  
aurkezpena izanen da. Jon  
Maliak «Riomundo» li-  
buruaren berri ematera  
etorriko da. Erakusketa  
bat ere zabalduko da ur-  
tarrilari bukaera emate-

ko. Urtarrilaren 23tik  
29ra, astelehenetik or-  
tziralera eta 15:00etatik  
21:00etara, Andersenek  
idatzitako ipuinetan oi-  
narritutako erakusketa  
izanen da Kultur Ba-  
tzordea eta Berako li-  
burutegiak antolatuta.

**Animali arriskutsuak edukitzeko lizentziak**

Udalak behin betiko  
onetsi du arriskutsuak

izan daitezkeen anima-  
liak edukitzeko lizen-  
tziak arautzen di-  
tuen ordenantza fiska-  
la. Horrela, ordenantza  
honetan aipatzen diran  
lizentziak emateko tasa  
33 eurokoa izanen da li-  
zentzia bakoitzeko. Ko-  
puru hau Herriko Etxe-  
an, udaltzainguan edo  
banku bidez ordaintze-  
ko aukeran ematen di-  
ran bertzelako bideak  
erabiliz ordaindu behar  
da.

**FLASH**

**Kultur Koordinatzaile berria izanen da**

Orain arte Gorane Ar-  
tieda izan dugu Kultur  
Etxean kultur koordina-  
tzaile lana egiten baina  
urtarrila azken aldera  
bukatzen du behar ho-  
ri. Raul Iglesias donos-  
tiarra izanen da he-  
mendik aintzineran Kul-  
tur Etxeko koordinatzaile  
berria. Behin betirako  
postu hori azaroan egin  
ziren oposaketak egi-  
nez lortu zuen.

**2006ko Udal zergen karga-tasak**

Udalak 2006ko uval z-  
ergen karga-tasak behin  
betiko onetsi ditu. Hor-  
rela, Hirilur kontribu-  
zioari %0,395ko karga-  
tasa eta Landalur kon-  
tribuzioari %0,8koa eza-  
rriko zaio. Bertzalde,  
2005ko Hirulurretako  
aberastasunaren Balo-  
razio Txostena onartu  
ezkero, Hirulur kontri-  
buzioari %0,15ko karga-  
tasa jarrito zaio. Az-  
kenik, Eraikuntzen, Ins-  
talazioen eta Obren gai-  
neko Zergari %4ko karga-  
tasa paratuko eta  
Iharduera Ekonomiko-  
en gaineko Zergari 1,2  
indizea aplikatuko zaio.

**San Jose Zahar Etxetik eskerrak**

San Jose Zahar Etxetik  
eskerrak eman nahi di-  
tuzte urte osoan eta  
Eguberrietako egun be-  
rezietan modu batean  
edo bertzean (zahar  
etxea apainduz, jakiak  
eta edariak oparituz...) lagundu duten orori.

**ANSONEA** *Jaletxoa*  
Egurreroko menua eta  
asteburutan menu bereziak  
Ostatua bere terrazan estaliarekin  
eta ziberkafetegia  
Foruen Plaza 1 • 948 631 155 • BERA

**BIZIKLETEN**  
SALMENTA ETA KONPONETZA  
**BIKETA - BIKE**  
KONPONETZA • BERA  
948 63 12 18

**BAR**  
**Botxo**  
OSTATUA  
© 94830052-Zahar-BERA



## LESACA

# Beti Gazteko sokatira taldea desagertzean

Ez du Euskadiko goma gaineko txapelketan parte hartuko

Aitor AROTZENA

Nafarroan, Euskadin eta Munduan hainbat txapel eta domina eskuratu dituen Beti Gazteko sokatira taldea desagertzera doare. Momentuz, asteburu honetan hasi den Euskadiko goma gaineko txapelketan ez du parte hartuko, baina gauzak aunitz aldatzen ez badira, ez ditugu berriz ere tiratzen ikusiko.

Arrazoiak aunitz izan daitezke. Nagusiena, Munduko txapelketan parte hartu ezina. Hainbat eta hainbat ordutako entrenamenduetako motibazio iturri handiena nazioartean lehiatzea zen. Baina Nazioarteko Federazioak, TWIFek, Espainiaren izenean aritzera behartu nahi zituen euskal taldeak eta hori ez zuen onartu Euskal Herriko Federazioak. Beraz, Munduko txapelketan parte hartu ezinik, Nafarroako eta Euskadiko gelditzen zaizkio Beti Gazteri. Nafarroan, Aresoko taldea lur gainean hasi zenetik, ez du

areriorik. Horrek ere motibazioa kendu die lesakarrei eta laz, erraterako, ez zuten parte hartu. Euskadiko txapelketan, berriz, azkeneko bi urtetan haserre akautu zuten Beti Gaztekoek. Abadiñok erabiltzen zuten oinetakoak eta materialak ez ziren legezkoak beraien ustez eta baldintza berdinetan lehiatzea eskatu zuten behin eta berriz. Joan den urte bukaeran jokatu zen lauko txapelketan arazo berbera errepikatu zen eta ez epaileek ezta Federazioak ere, ez zuten soluziobiderik eman. Arrazoi hauek guztiak elkartuta, entrenatzeko eta lehiatzeko gogorik gabe gelditu dira. Kontuan hartu behar da taldearen bizkarrezurra osatzen dutenak hamalau urte daramazkirela sokan, 30 urtetik goitikoak dira gehienak, beraien emazte eta seme-alabekin. Erran beharrik ez da sokatiratik ez dutela sosik ikusten eta beraien lanak akaututa entrenatzen dutela.



2004an Glasgown jokatu zen Munduko klub arteko txapelketan urrezko eta zilarrezko dominak eskuratu zituen Beti Gazteko sokatira taldeak. Gauzak aunitz aldatzen ez badira, maila horretan lortzen diren azken garaipenak izanen dira, zoritxarrez.



## San Anton Eguneako erromeria igandean

San Anton eguna urtarrilaren 17an ospatu baldin bazen, ohi bezala, erromeria hurrengo iganderako utzi da. Beraz, abenduaren 22an, mezak izanen dira Endara auzoko San Anton basilizan 10etan, 11etan eta 12etan. Beti Gazte elkarte mendi taldeak ateraldia ere antolatu du, goizeko 8etan abiatuta. Urtero bezala, lesakarrak ez ezik hainbat bisitari hurbilduko dira.

**TOAILAK**  
Toailak-Mantelak-Oheko mandreak  
Escolako haurren mantalak etab...  
bordatzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta biak  
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin  
bordatzen ditugu

Etan Plz. Berri 4-ro eta ikur berriak eskaintzen!! Tel: 948 627 640 - 629 481

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESACA  
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA  
Gasola etxera eramaten dugu

Tel: 948 63 74 60 31770 Lesaca (Nafarroa)

**GOZZ-AIDE**  
DANINDEGINDA  
DANINDEGINDA



## ETXALAR

# Patxiku Irisarri da herriko alkate berria

Hemezortzi urteren ondotik, Migel Mari Irigoienek alkatetza utzi du

### Joseba eta Nerea

«Egoera onean eta esku onetan gelditzen da». Hitz horiekin agurtu du Migel Mari Irigoienek 18 urteko alkatezta. Bere ordeaz, Patxiku Irisarri alderdikideak hartu du kargua eta bera izanen da herriko alkatea heldu den urte eta erdian, berri ere hauteskundeak egiten diren arte. Joan den urtarrilaren 10an egin zen ezhoiko batzarrean onartu zuen udalbatzak Patxiku Irisarri izatea alkate berria eta aldi berean kide berri bat sartu zen udalean, Nerea Mitxelorena.

Irigoienek erran digunez «esku onetan uzten dut herriko udala eta konfidantza osoa dut herriaren alde gogor lan egiten segituko dutela, azken 5 legealditan egin dugun bezala».

**22 URTE UDALEAN ETA 18 ALKATE**  
Gazterik sartu zen Mi-

gel Mari Irigoien Etxalarko udalean, 29 urterekin. Lehenbiziko 4 urteak oposizioan pasatu zituen, beti bere alderdia izan den "Herri Taldean". 1987. urtean izendatu zuten alkate lehenbiziko aldiz eta ordutik legegintzaldi guztietan mantendu du kargua.

### HERRITARREN MIRESPENA ETA ALKATEAREN ESKER ONA

22 urte hauetan egoerak izugarri aldatu dira argi eta garbi du Irigoienek. «baina nere ustez hobera aldatu dira. Eta espero dut bide horretan segituko dutela hemendik aitzinera ere». Lan aunitz egin du Migel Mari herriaren alde eta etxalartarren gehiengo handi baten oniritzi eta mirespenarekin erranen dio aho 18 urteko alkatetzari. «Herriar guztiak eskertu nahi ditut neregan jarri duzuen konfidantzaga-

tik eta bereziki agurtu nahi ditut 1983. urteaz geroztik lagun izan ditudan zinegotzi guztiak, udal langile guztiak eta baita inguruko udaletako ordezkariak ere».

### Pilota finalak igande honetan

Larunbat honetan, urtarrilak 21, Bortzirietako eskuz banakako V. Pilota txapelketako finalak jokatu dira herriko frontoian. Goizeko 9,30etan hasita eguerdira bitartean, 10 partidu ikusi ahal izanen dira. Guztira borts kategoriatako pilotariak arituko dira elkarren kontra lehian. Ez da lehenbiziko aldia Etxalartek gisa honetako final bat hartzen duela. Duela bi urte binakako txapelketako finalak jokatu ziren. Hala ere, aurtengo partiduek badute berezitasun bat: herriko pilotariak hor arituko direla. Lerro hauek idazterakoan oraindik ez ziren



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Lasaitasun osoz eta konfidantza guztiz utzi dio Irigoienek udaleko alkate bulegoa Patxiku Irisarri.



ARGAZKIA: GOIKO

Urte hauetan izandako lankide eta udal ordezkarien omenaldia jaso zuen Migel Mari Irigoienek.

final erdiak jokatuak baina Joxe Mari Maia Altxata Pilota Elkarteko arduradunak erran digunez «makur haundirik ez bada bi etxalartar ailegatuko dira finalera».

Orain arte hagitz txapelketa ona egin dute eta ongi bidean, igandeko finalean ikusiko ditugu». Ea suertea duten eta txapelen bat herriari gelditzen den.

**IBU BIDE**

**XATURETXEA**

**JATETXEA**

948 637 027 - LESAKA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko Istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

**HERRIKO**  
OSTATO - JATETXEA

HERRIKO OSTATO, 15 • 943 32 14 33  
TUTXA • 48100



## ARANTZA

# Aurtengo iñauteak otsailaren 9, 10 eta 11n izanen dira

Mozorro zuriak bilerak egiten ari  
dira egitaraua josteko

## Nerea ALTZURI

Urtea hasi orduko eta eguberri tenorea pasatu ondotik, iñaute aroari begira gaude. Zenbait herritan abudoago ospatzen badira ere, aste batzuren buruan herriko iñauteak izaten dira. Bilera batzuk egin ondotik, joan den astean, iñautetako egunak zehaztu zituen herriko gazte talde batek (mozorro xurien kuadrilak). Otsailaren 9an, 10ean eta 11ean iraganen dira, ortzegunean, ortziralean eta larunbatean. Honezkerok, egun-eguneko egitaraua lotzen ariko dira gazteak. Hurrengoan horren berri emanen dugu.

## Pilotariak lanean

Herriko atal honetan, tar-

teka-marteka herriko pilotari gaztetxoaren ibilerraren berri ematen dugu. Eskualdez kanpo txapelketa ezberdinetan parte hartzen ari diren pilotari heldueguez gai, Bortzirietako Banakako V. Txapelketako jardunaldiak aintzineratuz, nortzu parte hartzen ari diren adieraziko dugu. Honako hau Ekaitzako pilotari taldea: Xabi eta Andoni Taberna txikien mailan; Jon Mazizior umen kategorian; Markel Jorajuria kimuen taldean; Jon Jorajuria haurren mailan; eta Unai Iparragirre, Jon Alzuri, Josu Larretxea eta Andoni Mitxelena kadeten kategorian. Larunbat honetan jokatuko dira txapelketako finalak Etxalarren.



Amaia Telletxea, diskan parte hartu duten zenbait kantari eta musikarirekin.

## Ipuin kantatuak biltzen dituen diskan abestu du Amaia Telletxea

### N.A.

Bertze lan baten berri ere hartu dugu Dindaia Fundazioaren eskutik. Tikiagoei zuzenduriko josteta kantuez osaturiko lana zen lehenengoa, eta oraingoa berriz, lan hirukoitza da eta lau urtetik gorako umetxoei zuzendurikoa da. Ipuina, komikia eta CDa osagai ditu lan horrek eta bertan, herrikoia den Amaia Telletxeaz gain, eskualdetik Fermintxo Gartxitorena be-

rroetarrak, Ainara Mingia aurtitzar musikariak, Begoña Durruti arizkandar marrazkilariak, Itziar Irigoin donetebarrak eta Kantuzaleen Elkarteko zuzendariak, eta Estitxu Arozena eta Iñigo Olaetxea lesakar bertsolariak parte hartzen dute hainbat zereginetan. Amaiak Fermintxorekin ipuinei ahotza jartzen die «Xamarikoren ipuin zorroa» izeneko CD-an. Guzura 27 ipuin-kantu

daude musika lanean eta tartean eskualdean bildutako kontakizunak nahiz Olaetxeak eta Aroznenak idatziriko hitzekin osatutako kantuak daude. Izen bereko ipuina eta "Makin ipuin bidaiari" izeneko komiki lana ere gaineratzen dira lan hirukoitzan. Osatua eta ederra da, umetxoek nahiz guratsoek elkarrekin lantzeko eta jostatzeko. Ikasten eta jostetan ongi pasatzeko tresna zalantzarik gabek!

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazaritza eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Erenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarnitasun planak eta aurrekontuak

LESAKA: Bitorio, 71-behe  
Tel: 948 637 050  
Faxo: 948 637 404

BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713

Tel: 948 634 179  
**ARANTZA**

ALBERGIA - JATETXEA

**J. RAMOS**  
zolak akutxilatzen eta  
barnizatzen ditut

Tel: 948 637 172 LESAKA - Sabeleko 637 616033



## IGANTZI

# Giro nahasia herrian Orsaren lantegia dela eta

Anonimoak zabalduz hasi zen ilbeltza hasieran Udalbatzaren aurkako kanpaina

Oskar TXOPERENA

Beti da gogorra eta desatsegina horrelako gaietaz mintzatu edo idatzi behar izatea, baina hauxe da egunotan herrian daukagun berri nagusia: Orsaren lantegia harrobira ekartzea sortu duen eztabaida. Arriskutsua eta desagokoa litzateke hemen interpetrazioak egitea. Hortaz, gai honetan nolabaiteko protagonismoa duten bi aldeei —salaketa egin dutenei eta Udalbatzari— eskatu zaie euren eritzia ematea, ahal bada hemen hitzez-hitz publikatzeko neurrian. Salaketa egin dutenen aldetik deus bidali ez zaigunez, herrian banatutako karteletako informazioa biltzea iruditu zaigu egokiena:

«Igantzin Orsa asfalto fabrika eraikitzeke eta lanean hasitzeko baimena eman zuen Udalak 2005eko maiatzean plenotik pasatu gabe. Herriak ez ote luke proiektu honen berri jakin behar? Berrizauzen edo Beran kutsagarria bada Igantzin zertaz ez? Orain arte Udalak harrobiaren kontrako jarrera erakutsi badu, zergatik orain horrelako aldaketa? Galdera hauek denak erantzunik gabe daude, ez baita udaleko inor hauek argitzeko gai izan. Gure ustez horrelako enpresa batek onurak baino kalte gehiago dakartzak guk hainbortze maite dugun herri honentzat. Proiektu ilun honen kontra gaude. Fabrika

hau gu eta gure ingurumenarentzat hagitz kaltegarria delako».

Hau da, berriz, Udalak bidali diguna:

«Hau idazterakoan, lantegi honen proiektua oraindik Herriko Etxean dago, herriko arkitekto-aholkularien txostenaren zain. Proiektuak legedi urbanistikoa betetzen duela errango balute, Ingurugiro eta Industria Departamenduetara joan beharko luke proiektuak, onartzeko modukoa den ala ez erran dezaten. Legezkoa dela errango balute, baimen guztiak bildu eta gero, Herriko Etxearen lizentzia eman ala ez udalbatzaren osoko bilkuran erabaki beharko litzateke. Aldiz, Orsak ez baditu baimen horiek lortzen,



ARGAZKIA: Oskar TXOPERENA

Erregeen kabalgatak eman zien akabilla Eguberrietako beste. 25 urtetik goiti joan dira egiten hasi zenetik eta jendeak aunitz estimatzen du.

ez dira lanean inolaz ere hasiko. Beraz, salaketa faltsua da oinarritik. Bertzalde, hagitz grabea eta irresponsablea iruditzen zaigu herria hankaz goiti modu honetan paratzea, ekologismoaren ikurra hain modu zikinean erabiliz, Udalbatzari aitzinetik inongo informazio edo esplikaziorik eskatu gabe. Salatzailuek ez dute gainera datu objektiborik inon aportatzen. Irainak eta zehar-kako akusazioak, berriz, ausarki eta nonahi. Kutsadurari dagokionez, Ingurugiro Departamenduen bermeaz gain, ingurugiroan aditua den tekniko baten ikerketa

sakona eskatu behar du Udalak, erabakia zuzentasunez hartu ahal izateko. Guk ere maite dugu herria, eta horrexegatik gaude Herriko Etxean, herria hobetzeko gogoa dugulako. Herriarrok, egon zaitezte lasai eta izan ezazue konfidantza. Ez dizuegu hutseginen».

### Dimisioak Herriko Etxean

Anuntxi Txoperena eta Leire Arrebea ama-ala-bek dimisioa aurkeztu dute Herriko Etxean. Oker ez bagaude, Gemma Retegi eta Angel Urtxegi dira hurrengoak Herri Taldearen zerrendan.

**ZORIONAK**

1951tik lantzeria-etxea

## Casa Cambra

Merkealdia. Aste txuria  
urtarrilaren 15etik aintzinerara

- estredoi nortikoak
- estredoi-azal nortikoak
- ohe estalkiak
- maindireak
- toailak
- kuxinak
- albornozak
- mantelak

**Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634**



## BORTZIRIAK

## BERA-ENDARLATSA ERREPIDE BERRIA



Tunelik behar ez duen eta etorkizuneko Bide Berdea ukituko ez lukeen aukera bakarra izan da onartutakoa.

## Bera eta Endarlatsa arteko bide berriaren trazatua onartu da

Nafarroako Gobernuak tunelik behar ez duen proiektua hobetsi du

## ttipi-ttapa

Urtarrilaren 9an egin dako Nafarroako Gobernuko batzarrean, N-121Aren Bera eta Endarlatsaren arteko ibilbide berria onartu zen. Guztira bortz proiektu-arten hautatu behar izan zuten. Hiru Bidasoaren eskuinaldetik doazenak eta bertze bi ezkerretatik. Bortzen artean lauk tunel baten

beharra zuten, baina Nafarroako Gobernuak aukera horiek ez zituen begi onez ikusi eta tunelik behar ez duen proiektua onartu zuen. Honek ibilbide gehienan lehengoa segituko du, Bidasoaren eskuinaldetik. Aldaketa nagusia Villanuevako bihurgunean izan da. Orduan ibaiaren ezker aldera pasatuko baita,

90 grado egiten dituen bihurgunea ahal bezain bat leuntzeko. Beratik Endarlatsaraino errepideak hiru bide izanen ditu, bakoitza metro terdikoa, eta bide batzurretan metro bat eta erdi utziko dutela. Batzarren ondotik emandako prentsaurrekoan ekonomikoki hobereena eta ingurumena gehien errespetatzen zuen au-

kera onartu zutela erran zuten. Etorkizunean egin daitekeen bide berdearen proiektua trabatzen ez duen aukera bakarra izan da onartutakoa.

Obrak 2007ko hasieran emanen dira eta 2009rako bukatuak izan beharko dira. Endarlatsako Zubiari dagokionez berriz, bertze proiektu batean sartuko da.

### Erientzat garraioa eskatu du Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak

## ttipi-ttapa

Bortziritako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak, Nafarroako Osasunbideak tratamenduan dauden erien garraioa bere gain har dezan eskaria egin du. Bortziritatik tratamendu berezi batzuek egitera Iruñera edo Gipuzkoa aldera joan behar duten erientzat egin dute eskaria. Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen mankomunitateak azaldu duenez, ia-guntza hori batzuek onartzen zaie eta bertze batzuek berriz ez. Eskaera argudiatzen du erranez horrelako tratamenduak aunitzetan pisuak direla, hemodialisiak, erradioterapia, kimioterapia eta bertzeak bertze, gehienetan nekadura, buruko mina eta urduritasunak eragiten dutela.

Ondorioz guzti horiek bidea egiteko baldintza txarrak eragiten dituzte. Eskari honekin bat egin dute Bortziritako udalek ere.

**ZJ**  
Zalain  
jatetxea  
Hostala  
14 logela,  
bainu eta TBrekin  
P. Zabala 10 • Tel. 948 63 74 11  
Bera - Nafarroa

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK  
suaideroko aitonaik  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891  
Faxa: 948 637 511

**ATM S.A.**  
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.  
Igantziko Bentak  
948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestsa 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaiak.
- Mantenu rodilloak.



## ITUREN

# Gaztetxoek kalez kale jozitzen joareak Errege bezperan Iñauteak iragarriz

Zerbitzu ezberdinengatik urteko tasak eta prezioak onartu ditu Udalak

### Arkaitz MINDEGIA

Urtarrilaren 5ean, Errege bezperan, gaztetxoak herriko kaleetan joareak joaz ibili ziren. Arratsean berriz, ohiturari segituz, Herriko Ostatuan eta Aurtizko Ostatuan 120 lagun inguru elkartu ziren afaltzera, jatetxeak leporaino zeuden eta giro ezin hobea zegoen. Afaldu ondotik, Kristian akordeolariak alaitu zuen giroa ordu tikiak arte.

Goizaldeko 2:00ak inguruan, batzuk ostatuan besta egiten gelditzen ziren bitartean bertze batzuei joareak jozteko txanda iritsi zitzaizkien. Lehenik zubietarrak Aurtizera, herriari buelta eman tragoxka bat hartu eta Iturenera abiatu ziren. Iturenen denak elkartu, herriari buelta eman, eta berriz Aurtiz eta Zubietara jo-

an ziren 30 joaldunak.

Besta giroa ez zen falta izan eta inauteriak gainean ditugula ere ohar-tuginen joareak entzun bezain laister. Horren informazioa erdiko gehigarrian izanen duzue.

### Urteko tasak eta prezioak onartu ditu Udalak

Udalak urte honetarako zenbait tasa eta prezio onartu ditu.

- Etxerako urak 50 euroko kuota finkoa izanen du (gehi BEZa).
- Ostatu eta jatetxeek 100 euroko kuota (gehi BEZa).
- Auzolana ez egitearen truke ordaintzen den diru kopurua 30 euro auzolan bakoitzeko.
- Hirilurraren gaineko kontribuzioa, katastroko balio berri eta garbien %0,27a.

• Landalurraren gaineko kontribuzioa, mantentzea katastroko balio berri eta garbien %0,633a.

• Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga, obraren benetako kostu osoaren %3a mantetzen da.

### Ibintzaren zozketan saridunak

Errege Bezperan, jendaurrean egin zen zozketan hauek izan ziren irabazleak; lehenbiziko saria zari eder bat, 1708 zenbakiarekin, Aitziber Erasun doneztebarrak eraman zuen. Bigarren saria, bizikleta, 2408 zenbakiarekin Asier Apeztegiak eta hirugarrena 1490 zenbakiarekin Albunea erretegian 2 lagunendako afaria Irune Altxuri egokitu zitzaion.



ARGAZKIA: FELIXE UZOA

Joaldunak Errege bezperan estutu zituzten aurretik lehen aldiz joareak. Iñauteak gainean ditugu eta honezgero, berriz ere lotzeko irrikitan izanen dira.

### Zorionak herriko gaztetxoek

Urtero Malerrekako Mankomunitateko Eus-kara Batzordeak antolatzen duen ipuin eta bertso-paperlehiaketan, herriko hainbat gaztetxok parte hartu zuten eta baita irabazleak suertatu ere.

Bertso-paper lehiaketari dagokionez, sari

gehienak Iturenen gelditu ziren, 8 eta 10 urtekoen artean, Izaro Ariztegik lortu zuen lehen saria «Elizara joaten naizenean» bertso-sortarengatik. Bigarren saria Aitz Aioroak eraman zuen «Bestak» izenburua zuten bertsoengatik eta 10 eta 12 urte bitarteko mailan, lehen saria Garbiñe Olazar Bazterrikak eskuratu zuen.



## BAZTAN

### ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gartzain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



## Bidali ttipi-ttapa herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

☎ (+34) 948 635458



## SUNBILLA

# Giro ederrean egin dira aurten ere Eguberrietako ekitaldiak

Otsailaren 18an, bertzalde, Formigallera ateraldia antolatu da

Jalone O. A.

Eguberrietan ohikoak diren ekitaldiak, olentzeroren ibilaldia, gazteen "eskean ibiltzea" eta errege kabalgatak izugarriko partehartzea izan dute herriko jendearen nahiz kanpotik etorritakoen partetik. Aurten, aspaldiko partez, olentzeroren ibilaldia egin ondotik, Ulibeltzak elkartearen haurrak berentzen ari zirenean, olentzero azaldu eta haur bakoitzari opari bana eman zien. Ondoren berarekin argazkiak ateratzeko aukera ere izan genuen.

Bestalde, abenduarren 25an herriko 22 gazte eskean atera ziren, Arkaitz Mindegia, Aurtizko trikitilaria bereaiekin zutela. Arratsaldean herrian barna ibili ziren eta gauean baserri-baserri. Egun horretan bildutako diruarekin urtarrilaren 7an bazkaria egin zuten Bustitz ostatuan. Bazkalostean ere Arkaitzen trikitixa soinuaz eta gazteek sortutako



Argazkia: JALONE O.

Eguberri egunean egindako eskean bildutako ditu eta puxkekin gazteek bazkaria egin zuten urtarrilaren 7an Bustitz ostatuan.

giro ederraz gozatzeko aukera izan zen.

Errege kabalgatak ere jende ugari bildu du aurten elizako arkupeira. Erregeek, muxu ematera hurbildu ziren haur guztiel goxokiak eta opariak banatu zizkieten, baita Jesus haurtxoari ere. Olentzerorren bezala, erregeekin

ere argazkiak ateratzeko aukera izan zen.

## Otsailaren 18an Formigallera

Otsailaren 18rako ateraldia antolatu du Ulibeltzak elkarteak. Formigallera izanen da ateraldia, eski alpino egitera. Bertan materiala alokatzeko eta monito-

rekin ikasteko aukera izanen da. Nahi duen guztiak eman dezake izena irteera honetan, ez da Ulibeltzako bazkide izan beharrik eta haurrak ere joan daitezke. Antolatzaileek lehenbailehen izena ematea aholkatu dute, Ulibeltzak elkartearen edo Vidal Ibarri.

## FLASH

## Ulibeltzak elkartearen loteria

Ulibeltzak elkarteak bere bazkideei banatutako eguberrietako loterian 18 euro tokatu dira. Martxoaren 18a baino lehen kobratu behar da. Nafarroako Kutxan, Rural Kutxan edo Ulibeltzak elkartearen egin beharko da eta horretarako loteria aurriztea nahitaezkoa izanen da.

## Ulibeltzak mendi taldearen irteerak

Urtarrilaren 8an Ulibeltzak mendi taldeak urteko lehen ateraldia egin zuen. Betan hamalau lagun ateri ziren herritik Mendaurra eta egurdirako itzuli. Hurrengo ateraldia urtarrilaren 22an izanen da, Sunbilla Oteixon mendira. Norbaitek urte guztirako prestatuta dauden ateraldien berri izan nahi badu, Vidal Ibarri erran diezaiola eta bertzenaz ere ttipi ttapako ale bakoitzean hurrengo ateraldien berri emanen da.

## Txirindulari taldean federatzeko

Ulibeltzak elkartearen txirindularitza taldean federatu nahi duenak, Nortasun Agiriarekin batera, Xanti Arretxearen erran diezaiola.

## Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI - Andutzeta 12, Etxalar - Tiboia, 948 63 54 58

**TOLDOAK** salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa  
**MOSKITERAK-PERTSIANAK** motorizatua  
 venezianak-PVCzko **LEIHO** eta **ITXITURAK**  
 Tel-Fax: 948 631 003 - Bidasoa, 66 behe - BERA



**DONEZTEBE**

## Elkartasuna kasinoak igandean egingen du urteko batzar nagusia

Xanba San Miguelek Javier Anduezari utziko dio presidente kargua

**ttipi-ttapa**

Igande honetan, urtarrilaren 22an, egingen du La Union-Elkartasuna kasinoak urteko batzar nagusia. Eguerdiko 12:00etan lehen delaldian eta 12:30etan bigarrenan, izanen dute hitzordua. Aurtengoa bazkideek ez dute delaldia postaz jasoko, bertzet baliabide batzuen bidez baizik. Gai-ordenari dagokionez, azken batzarreko aktaren irakurketa eta onarpena; zuzendaritza-batzordearen berrieta; elkartearen izandako altak eta bajak; urtean egindako ekitaldien balantzea eta kontuen egoera eta azkenik, ohiko galdera eta eskarien txanda izanen da. Jakina denez, batzarordea uzten duten hiru kidek, bertzet hiru izendatzeko modua dute. Honela, Xanba San Miguel presidenteak, Juan Estangak eta Jesus Mangadok utzi egingen dute eta seguruenik, Javier Andueza izanen da presidente berria eta Fe-



UTZITAKO ARGAZKIA

**Errekaren Eguberriko saskia**

Abenduaren 31n Errekaren Eguberriko saskia eman zion kiroledegian Juan Telletxea lehendakariak Celestino Osakar zigatarrari. Gogoratu 1580a izan zela zenbaki sarlitua.

lpe Ganboa eta Peio Iribarren bokal berriak.

**San Miguel eskolako futbol taldea Iruñean**

San Miguel eskolako futbol taldeak parte hartu du Iruñean Osasuna Fundazioak anto-

latutako XXIV. Eskolarteko txapelketan. Lehenbiziko aldiz aritu dira doneztebarrak txapelketa honetan eta itxurra bikaina eman dute. Nafarroa osoko 41 ikastetxek parte hartu dute txapelketan. Lehenbiziko fasean, lau parti-

duetatik hiru irabazi (2-8 Ermitagañari, 2-1 iaz txapeldun izandako Paz de Zigandari eta 3-0 Iruñeko Hijas de Jesus) eta bakarra galdu ondotik (1-2 Jaso Ikastolaren kontra) azken faserako sailkatu ziren Jaime Seinek zuzendutako do-

**FLASH**

**Eskolako futbol zelaiko lanen faktura**

Eskolako futbol zelaian egindako lanengatik Mariezcurrrena eraikuntza enpresak aurkeztutako faktura eztabaidagai izan zen abenduko batzarrean. Izan ere, lanak 38.615,40 euroan eman zitzaizkion Mariezcurrrenari eta 102.439,61 euroko faktura aurkeztu du. Zugarramurdi zinegotziak aipatu zuenez, memorian aurkeztutako prezio aunitz zaharkituak zeuden eta obra egoki egiteko hainbat lan ez zeuden sartuak. EAKo Etxebeste eta Rekartek faktura onartzearen kontra bozkatu zuten eta bertzet zinegotziek alde.

**Udal batzarren ordutegia**

Udal batzarren ordutegia ere eztabaidagai izan da. EAK arratsaldetan egitea eskatu du, baina batzarrak goizean egingen segitzea erabaki du.

neztebarrak. Final zortzirenetako partidaren, Calasanz taldearen kontra 3-4 galdu zuten eta kanporatuak gelditu ziren. Txapelketa akituta, jokalarion onenaren saria Borja Arregi Muñoz doneztebarrarentzat izan zen.

**Pitti eskabazioak**  
Tfnoa: 616 513 491

Mendiakidea etxea, 34 ZUBIETA

**APARAN, S.A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 450 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**ttipi ttapa**

**(0034) 948635458**



## DONAMARIA

# Artze eta Gazteluko ur-sarea eta zola berritze lanak lehiaketara

Proposamenak urtarrilaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dira

## ttipi-ttapa

Donamariako Udalak, Artze eta gazteluko euritako ura biltzeko sarea berritzeko eta ondotik egin beharreko zolaberritze lanak lehiaketara ateratu ditu. Lanen aurrekontua 503.490,27 eurokoa da, 212.673,97 euro sareak berritzeko eta gainerako 290.816,30 euroak, lan hauen ondorioz altxatuko diren karriken zolaberritze lanetarako. Sareak berritzerakoan, 39 ebetarako ur-hartzea ere egingen da.

Interesatutako enpresek urtarrilaren 27ko eguerdia baino lehen aurkeztu beharko dituzte proposamenak Donamariako udalebtean. Sobreak egun berean irekiko dira, 20:00etan.



ARTZEBIAK

## Fulgencia Irazoki hil da 101 urtetan

Aste honetan, urtarrilaren 16an, 102 urte beteko zituen Fulgencia Irazokik, baina urtarrilaren 13an hil zen. Beran jaioa, Donamariako Perotxenea baserrira etorri zen bizitzera, Nicolas Lasagarekin espostu ondotik. Sei seme-alaba izan zituen (horietatik lau bizi dira), 19 biloba eta 23 birbiloba. Hil aitzinetik bi bronkiti izan zituen eta hori ezin izan zuen gainditu. Goian bego.



## MALERREKA

## Traste handiak biltzeko abisatzeko telefonoa aldatu da

## ttipi-ttapa

Gaur egun, Malerrekako Mankomunitateak zenbait hondakin solido kudeatzen ditu: beira-kristala, papera, enbaseak edo hondakin orokorrak, birziklatu ezin direnak. Bakoitzak bere edukiontzia izaten du eta birziklapena behar bezala egiteko, hasieratik bereiztea komeni da. Hauetaz gain, neuri handiko trasteak ere biltzen ditu Emauseko Traperos-ekoek. Horretarako, orain arte aitzinetik Mankomunitatera deitu behar zen. Hemendik aitzinera ere abisua eman beharko da, 948 451979 telefonora deituz.

## Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58

IIIURDIO COENETXE ETXEBERRI

## ANZABAL AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, bordsa, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santago 15 - Ilioa eta Etxa: 948 580404 - ELIZONDO





2006

# INAUTERIAK







Encomienda de  
**Jose GOMEZ, S.L.**

Ongi pasa  
Ihoteak !!

**oihalak**

Elgolen, 30 - Tel: 948 510 130 - LEITZA

**BIKOITZ**

**Taberna**

- Pintxoak
- Tarta eta opilak
- Pastelak

WOTEAK ONGI PASA /

Elbarren, 16 - LEITZA - Tfnoa: 948 510 072

**SAGASTI**  
**JATETXEA**

Ongi pasa ihoteak!



Elbarren, 98 - LEITZA - 948 610 637

**LEITZA** Garagea



**Peugeot Agentzia**

Direkzio eta ordenadore  
bidezko azterketak

**STIHL** Stihl Agentzia

Amazabal, 29 - Tel: 948 510 466 - LEITZA



**MUSUNZAR**  
**OSTATEGIA**

- Jatetxea
- Logelak

Ihoteak ongi pasa

Elbarren, 14 - Tel: 948 510 607 • 948 510 475  
LEITZA

**ARAKINDEGIA**  
**jatetxea**



- Menua
- Karta
- Garaian garaiko otorduak

Elbarren, 42 • Telefonoa: 948 510 052 • LEITZA



# LEITZA

ILBELTZAK **21**

**LARUNBATA**  
**eskea**

- 16:00etan **herriko eskea**: trikitilari, txistulari, akordeolariek lagundua.
- 21:30etan **atsoguretuen bertso aparie**.
- 00:00etan **kontzertuak** gazte asanbladak antolatuak.



ILBELTZAK **22**

**IGANDEA**  
**gurdien kalejira**

- 12:00etan **atsoguretuen** eta **gurdien** kalejira INCANSABLES txarangarekin.
- 12:00etan **Txu-Txu tren**a herrian barrena.
- 14:30etan atsoguretuen **Herri bazkaria**.
- 16:00etan **Txu-Txu tren**a herrian barrena.
- 18:00etan INCANSABLES txarangarekin **kalejira**.
- 19:00etan GAU-BELA taldearekin **dantzaldia** karrapen.
- 23:30etan GAU-BELA taldearekin **dantzaldia** karrapen.





# INAUTERIAK 2006

## ILBELTZAK 23 **ASTELEHENA** eskea

- 09:00etan **baserrietako eskea** Arkiskil, Gorritzaran, Sakulu eta Erreka auzoetara. Egun guztirako mendialdera.
- 15:00etan **puzgarriak** amazabal pilotalekuan. Kultur Taldearen eskutik.
- 19:00etan GAU-BELA taldearekin **dantzaldia** karrapen.
- 23:30etan GAU-BELA taldearekin **dantzaldia** karrapen.

## ILBELTZAK 24 **ASTEARTEA** eskea

- 09:30etan **baserrietako eskea** Erasote auzora txistulariekin.
- 14:30etan Aurrerako bazkide eta eskalarien **bazkaria**.
- 16:00etan Ume eta gaztetxoentzat ekitaldia.
- 17:00etan Ume eta gaztetxoan **kalejira** INCANSABLES txaranga eta buru haundiekin.
- 18:00etan **txokolatada** plazan.
- 19:00etan GAU-BELA taldearekin **dantzaldia** karrapen.
- 23:30etan GAU-BELA taldearekin **dantzaldia** karrapen.



**MAIMUR**  
Herriko Plaza  
**LEITZA**  
Tfnoa-Faxa:  
948 510 146

• Prentsa - opariak - testu liburuak  
• Plastikatzekak - enkuadernatzekak  
• Inprenta lanak - fotokopiak

 **Charter**  
Leitza

☎ 948 510 007 ☎ 948 610 657  
Elbarren, 20 eta 71 • LEITZA

**HARATEGIA-VRDAITEGIA**  
**URKIOLA**

**ongi pasa ihoteak!**

Elbarren, 94 • Tfnoa: 948 510 457  
Elgoien, 6 • Tfnoa: 948 510 747

**LANDA**  
Ostatu-Jatetxea



Tel: 948 510 986 - 948 510 735  
Faxa: 948 510 736  
Industrialdea, Landa Eraikina - LEITZA

www.landaostatuja.com





Tel: 948 450 773  
Mugikorra: 619 416 959  
Auloa Baserna - SUNBILLA

# ESPELOSIN

eraikuntzak

# FONDA

## OSTATUA

ongi pasa inauteriak!

ONDIBANE KARRIKA • SUNBILLA  
948 450 180

# Lizun

GAZTANDEGIA  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • SUNBILLA • Tfnoa: 948 450 862

# ALZUBI MENDI LAN - ESERKEZIOAK

Tel./Fax: 948 450 504  
Móvil: 659 867 387  
699 461 394  
SUNBILLA - NAFARRA

Kimatze lanak • Zerrakurak • Plantazioak  
Ongi pasa inauteriak

# Maria Jesus

harategia  
Bertako haragia

ONGI PASA  
INAUTERIAK

Karrika nagusia 11 • SUNBILLA • 948 451 530

# SUNBILLA

## URTARRILAK 27 OSTIRALA baserriak



- Goizeko 9:00etan **gosaria** Itturburu ostatuan herriko gazteak.
- 2 taldetan banatu eta **baserrietara** joan, Modesto eta Jose Angel kordioilariekin.
- **Bazkaria** Ixtola eta Ulibeltzak Elkartean.
- Arratsaldean, herriko haurrek **txokolata** Ulibeltzak elkartean eta 16:00 etatik 18:00ak arte **musika** Salaberriekin.

• 20:00etatik 22:00ak arte **dantzaldia** udaletxeko arkupeetan Salaberri

- Gaueko 21:30etan eskean dabilzan gazteak Itturburu ostatuan.
- **Emakumeen afaria** Ulibeltzak elkartean, ondoren **sorpresa** eta **dantzaldia** Salaberri

## URTARRILAK 28 LARUNBATA herria

- Goizeko 10:00etan **gosaria** Itturburu ostatuan.
- Herrian zehar **eskean ibili** Salaberri eta Modestorekin.
- **Bazkaria** Fonda ostatuan eskean dabilzan gazteekin.
- 18:30etatik 20:30ak arte haurrentzako **zorro besta** ulibeltzak elkartean. (haurtiak mozorrotuak joatea beharrezkoa)
- 20:00etatik 22:00ak arte **dantzaldia** udaletxeko arkupeetan Modestorekin.
- Gazteek **afaria** Bustitz ostatuan.





# INAUTERIAK 2006



## URTARRILAK 29 IGANDEA karrozak

13:30etan **karrozen desfilea**, opillak, linak, hezur salda, tortilla eta ardoa bakoiz erakutsi dira ikusleen artean.

13:30etan **bazkaria** Ulibeltzak elkartean bazkaldu ondotik **dantzaldia** Jalisko elkartean eta taldearekin.

**5 ttipi-ttapa Inauterietako Gehigarria**  
414. zbk. 06-I-19

## BUSTITZ

OSTATU - JATETXE

HAR JESSEN ZIKLO  
KONTRAKO JATE  
DINTXO GORRI

ONGI PASA  
INAUTERIAK

LEXU EDER KARRIKA • © 948 450 504 • SUNBILLA

## Marisol

Janaridenda

INAZ 2006 INAUTERIAK

Karrika nagusia, 7 • SUNBILLA • 948 450 604

## IRURI MOTOR

Aukerako autoak  
4x4 autoetan modelo guztiak  
Salerosketa zerbitzua

Iruña-Irun errep. zaharra • SUNBILLA  
Tfnoa: 948 450 399

## CAMPING BAR RESTAURANTE PIZTIGAIN

- Eguneko menua, plater konbinatuak eta bokadilloak astez.
- Asteburuetan karta ere.
- Lehen jaunartzeak, bataioak, despedidak... ospatzen dira.
- Haurrekin etortzeko toki paregabea

Emeserbak eta informazioa:  
600 634434

31791 - SUNBILLA (Nafarroa)  
Tel./Fax: 948 450 540  
www.ariztigain.com  
ariztigain@trameas.com

ESKATU AURREKONTUA  
KONPROMISORIK GABE  
ONGI PASA INAUTERIAK

## IBARBURU ERRETEGIA

SUNBILLAKO INAUTERIETAN  
MENU BEREKIA

ONGI PASA  
INAUTERIAK

N-121-A errepidea, 49 km • Ibarburu baserria • DONEZTEBE





Asteorostan,  
besta egunetan  
eta biatzeretan  
irekia.

**ALTZUNEA  
ERRETEGIA  
ITUREN**

INAUTERIETAN  
IREKIA

Tfn: 945 450 412

**DISFRACES LA MASCARA**



- Maubereako mozorroetan
- Sen-dina daukagu
- Era guztietako osagarrien alokaria eta salmenta
- Feslen prestakuntza
- Makillaje profesionala

Abejeras, 6 • Tel-Fax: 948 25 00 04 • IRUÑEA

**Tout  
POUR LA Fête**

Estazio karrika, 13 (2 zubien artea)  
HENDAIA • 00.33.0559.48.37.58

- Mozorroen alokairu eta salmenta
- Baserritar jantzien aukera zabala
- Mozorro guztietarako osagarriak
- Makillaje profesionalak
- Piroteknia artikulua




# ITUREN, AURTITZ

Otsailaren 26an Joaldunek eginen duten lehen **puxka biltze** eta **afaria**-rekin hasiko dira Iñauteak Aurtitz, Ituren eta Zubietan.

Larunbatean izanen dute segida, **afaria** eta **dantzaldia** egiten baita egun horretan.

**Igandean**, jantzi osoa paratuz lehen **ibilaldia** eginen dute joaldunek karriz karrika.



## URTARRILAK 30 **ASTELEHENA**

- **Zubietako joaldunak** mozorro eta karrozek launduta **Aurtitzarrei bisita** eginen diete, herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik **Iturenerra** joanen dira. Lasagako Zarandia parean, denak elkartu eta herriari buelta emanen diote. Joaldunek aperitiboa hartzen duten bitartean, plazan karroza bakoitzak bere ikuskizuna eginen du.

- **Egurdian 15:30ak aldera**, bakoitza bere herrira itzuli eta **bazkaria** izanen dute elkarteetan.

- **Gauean** ordu tikiak arte **besta** segituko du.

## URTARRILAK 31 **ASTEARTEA**

- **Ituren, Aurtitz eta Lasagako joaldunek** bisita bueltatuko diete **Zubietarrei**, urtero-urtero, batzuen us-tez natura ernatzeko eta uzta berri eta ugariak emateko egiten den ohiturari eutsiz.





## ETA ZUBIETA

### OTSAILAK 1 ASTEAZKENA

- Asteazkena lasaiagoa izaten da, bakoitza berrian gelditzen baita, eta **bazkari** eta **afarie** tean besta egiteko eta azkeneko gau eta egu zeetan gertatutakoen balantzea egiteko erabidena.
- Aurtitz eta Iturenen, halere, etxez etxe dirua **puskak biltzen** eta kaferen bat hartzen ibira gazteak eta Zubietan berriz bazkalondore dira inauterietako kontuak.



### KONTUEN EGUNA

Kontuen eguna izaten da, hain zuzen, Iñauteetako azkena. Egun horretan ez da joaririk jotzen. Zubietan asteakenean egiten dute. Iñauteak akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Iturenen eta Aurtizen igandean. Iturenen bazkaria izaten dute Herriko Etxean. Bazkaldu aitzinetik herriko dantzariak bertsolariak eta aizkora apostua izanen dira herriko plazan.

Bazkaldu ondotik dantzaldia izanen da eta, mozkorraldia izugarria ez bada, bederen, bestarekin segitzeko aukera dago, afaria eta dantzaldian.

Aurtitzen zaharren afaria egiten dute eta Iturenen kontuen afaria, iñauteak heldu den urtera arte agurtuz.

**M INDEGIA**  
ZUBIETA

Aurrekontua konprometzurik gabe

- Asteak • Terrak • Eskailerak
- Teilatuko zurrak • Sukalde mobleak
- Zurgin lanak orokorrean

Tel: 948 451 906 689 531 012 AURTIZ

**Herriko Ostaturia**  
ITUREN

Herriko Plazan  
948 45 14 30

- Landa etxea 2 ohatzeko 3 logelarekin
- Euskal zerria

**MADERAS SANTESTEBAN**

ZERRATEGIA

- Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
- Bigak
- Teilatutarako egiturak
- Osagarriak
- Autoklabe tratamendua
- Montajea obran

ZUBIETA • 948 450 877

**ERRANDONEA**  
OSTATUA

INAUTERIETAN GIRO PAREGABEA

948 450 216 • ZUBIETA

**INAUTERIETAKO** BIDEOKAK  
ETA DVDK  
SALGAI

948 635 458





- LUR MUGIMENDUAK • ZANPATZEAK • BERDINKETAK
- URBANIZAZIOAK • KANALIZAZIOAK • GARRAIOAK

Tel: 948 451 596 • Faxa: 948 456 168 • 667 424 635 Leku-Eder 6 • SUNBILLA

# sagardotegiak



## Baztan-Bidasoako sagardotegiak LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA  
Telleria auzoa • LEKAROZ  
948 452121 • 626 494317

LINDDURRENBORDA  
Nabaz auzoa • LESAKA  
948 637212



102 Meaka auzoa  
20304 IRUN  
Tel.: 948 623 130

## txotx

**DENBORALDI IREKIERA:**  
Urtarrilaren 22an  
Eguerdiko 14:00etan

Omenaldia: Peio Urtzegiri  
Bertsolariak: Peña eta Aitor Mendiluze

Bazkarira joateko izen-ematea: 943 623 130



OSTIRALERO **LUR D JOTAK** Lurtaberna 00:45

urtarrilak **21** larunbata

# bidebät

# MUTED

**8€** **23:30**

urtarrilak **28** larunbata

# BINGO

ESKURA EZAZU ZURE KARTOIA  
SARRERAKIN BATERA  
MARRA **300€ BINGOA 600€**

bingoa 3:00etan egingo da  
**8€** **01:00**  
+ KOHSUMIZIOA  
+ KARTOIA

otsailak **04** larunbata

# ERASO!

**10€**



GOIZUETA

# Arzallus, Kolina eta Uranga bertsoan gaztetxean larunbatean

Esteban AROTZENA

Momentu honetako hiru bertsolari gazte hobereak, Amets Arzallusek, Sustrai Kolinak eta Jokin Urangak alegia, Gaztetxean kantatuko dute larunbat honetan, hilak 21, arratsaldeko 6:30etan hasiko den saioan.

Bertsozaleek ongi dakiten bezala, bi lapurtarrak BECen jokatu berri den txapelketa nagusiko finalean izan ziren; Uranga azpeitiarra berriz, puntu terdirerengatik ez zen sartu final haundi horretan. Gazte Asanblada da saioaren antolatzailea.



ARGAZKIA: LUIS ANGEL

Xumea baina egitan hunkigarria Urtezahar egunean Umore Onak Aimarri eskeinitako omenalditxoak. Lekuona presidentek ederki aski adierazi zuen Goizuetaren izena Aimarri esker Euskal Herrian zabaldu izanarena. Umore Onari eta plazan bildutako jendetzari eskerrak emanez eta txapela gehiago lortzen gogor saiatuko dela esanez erantzun zuen txapeldunak. Elkartearen eta pilota eskolaren orogarriak jaso zituen Aimarrek, eta honek bere kamiseta gorri bat oparitu zion Umore Onari. Manolo Arozenaren bertsoak eta jendearen oihu eta txalo beroek eman zioten bukaera ekitaldiari.

# Jon Apezetxeak bigarren mailako txapelketa jokatzuz debutatuko du

E.A.

Jon Apezetxeak hil honen 30ean Tolosan burutuko den jaialdian

debutatuko du Aspe enpresarekin. Bigarren mailako txapelketa sartu dute gainera bete-be-

tean, eta bere lehenengo partidua Baleztena eta Galarza VI.aren kontra jokatzeko du, Auxkin lagun duela. Apirilaren

12an egingen ditu Jonek 18 urte. Beraz, esku pilotaren historiako profesionalik gazteenetakoa izanen da herritarra.

Beiokek, Aimarrek edo Oinatzek, esate baterako, 18 urte beteak zituzten debutatu zuten zuterenako.

ARESO

# Herriko mediku kontsulta ere informatizatu da

Udaletxeak jarri du materiala

Juana Mari SAIZAR

Badira urte dexente, medikuendako kontsultorioa martxan jarri zela. Asteaz behin medikuak kontsulta pasatzen du, ordu batez. Leitzako Osasun Etxean informatizatu daude lan gehienak, medikuak eta erizainak gaixoen segimendua ordenagailuz egiten dute eta historialak bere egin be-

harrak zaharkituak gelditu dira. Orain dela 3 hilabete Aresoko kontsulta ere sarean sartu dute, beraz kontsultak askoz aberatsagoak dira, informazioa guztia ordenagailuan dagoelako. Zonaldeko zuzendaria den Begoña Jimenok, udaletxearekin hitz egin ondoren, materialez osatu du kontsulta, eta orain, edozein

ARGAZKIA: JUANA MARI  
Herriko kontsultorioa ordenagailuz eta material berriaz osatua.



motako larrialdiak, sueroak, bihotzeko larrialdiak, puntuak josi eta beste egin daiteke herrian, erositako materialarekin. Pixkana aurrerantzean saiatuko dira zerbitzu gehiago jarritzen eta eskaintzen, be-

ti herriko jendearen onarerengatik, eta Leitzako Osasun etxean ematen diren Zerbitzuak herrian izatea. Pentsatzen ari dira kontsulta ordu gehiago edukitzea, baina kondizio onean emateko erizainek ere hemen

beharko lukete, eta hori dena ongi lotzen luzerako joango dela ematen du. Momentu honetan erizain zerbitzuak ematen dira bainan egozera berezietan eta zailtasunak dituztenak Leitzera joateko.



**LEITZA**

## Negozioak sortzen laguntzeko tailerrak emango dira

Cederna-Garalur arduratuko da, Empleate proiektuaren barnean

**Itipi-itapa**

Enpresa propioa sortu eta martxan jartzeko zailtasun gehien duten pertsonen laguntzeko helburuarekin, Empleate proiektua abian jarri du Nafarroako Gobernuak. Cederna-Garalur arduratuko da proiektuaz Leitza, Areso, Goizueta, Lekunberri, Larraun, Araitz, Betelu, Imotz, Basaburua eta Ultzaman. Proiektua emakume, gazte, etorkin, ijito, gubioetsitako taldeei, denbora luzean langabezian egondako pertsonen, bazterte egoeran dauden eta lan bila dabilzan pertsonen esate baterako, zuzendua dago.

**PRE-EMPREDER**

**TAILERRA URTARRILAREN 25ETIK OTSAILAREN 2RA**

Urtarriletik aurrera, Negozio Identifikazio Tailerrak eta negozio bat martxan jartzeko beharrezkoak diren gaitasunak lantzeko tailerrak emanen dira eskualdean. Hasteko, Leitza urtarrilaren 25etik otsailaren 2ra «Pre-empredere» tailerra emango da. Lau modulo ezberdin landuko dira tailer honetan. Lehenik informatika emango da urtarrilaren 25, 26 eta



UTZ/NEKO ARKITEKTURA

**Iruso hostala «Establezimendu berezia» izendatu dute** Leitza inguruan dagoen Iruso jatetxe-hostalaren atarian ageri da Fran Hernandorena. Irailaren 22az geroztik gobernatzan du jatetxea eta hostala 26 urteko leitzarrak. Nafarroako Ostalaritza Enpresa Txikien Elkarteak (ANAPEH) ematen duen «Establezimendu berezia» saria jaso zuen Irusok abenduaren 28an, hostalen kategorian. Epaimahaiak leku ezin hobean dagoela eta egindako zaharberritze lanak azpimarratu ditu eta «dekorazioak eta logelaren dotoreziak bisitaria mundu magiko batean» murgiltzen dituela.

27an, 16:00etatik 18:30etara, Word dokumentuak egin eta Windows-en antolaketak landuz. Zazpi ordu terdiko ikastaroa izanen da. Beste hiru modulok urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra emango dira, 9:30etatik 13:00etara. Bi ordu terdiz sustatzeko baliabideak emanen dira, bost orduz Nafarroako enpresari buruz oinarritzko ezagutza eta beste bost

orduz denbora kudeaketa.

Ez omen da beharrezkoa tailer honetako modulo guztiak egitea, baizik eta norbait moduren bat edo bi egiteko interesatua badago, horiek bakarrik egin daitezke. Dena den, kurtsuari edo proiektuari buruz informazio gehiago nahi duenak, Garapen Agentziarekin (617 609328) edo Lan Orientazio Zerbitzuarekin

(619328264) kontaktuan jar daiteke.

Empleate proiektua Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatu du, eta Equal ekimen komunitarioaren barnean dago. Proiektua metodo eta lanabes berritzaileen diseinu eta garapenean oinarritzen da enpresak sortzeko. Proiektu honi buruz informazio gehiago jasotzeko [www.empleatenavarra.net](http://www.empleatenavarra.net) orrira jo daiteke.

**FLASH**

**Inaxio Perurenak marka saiakera**

Inaxio Perurenak marka saiakera egingen du larunbat honetan, urtarrilaren 21ean Erandion, 220 kiloko harriarekin esku bakarrarekin egingen du ahalegina. Bere aita da esku bakarrarekin pisu gehien jaso zuena, eta ondok Aimar Irigoien dago. Errezildarrak 218 kiloko harria jaso zuen joan den urrian eta Inaxio, orain bi kilo gehiagorekin saiaturiko da. Perurena gazteak azkeneko errekorra azaroan egin zuen, orduan bi eskurekin 280 kilokoa jasotzea lortu zuen.

**Inauteetako egitarauan aldaketak**

Inauteen egitarauan azken orduko zenbait aldaketa izanen dira. Asteartean, ilbeltzaren 24an, goizeko 11:30etan «Ingurumenua» izeneko antzeslana eskainiko da zinemari. 16:00etan makillaje tailerra egingen da. 17:00etan Incansables txarangarekin kalejira izanen da haurtxo eta gazteentzat. Ondok, txokolatada eta karameloak banatuko dira, trikitilarien laguntzarekin. Beste aldetik, egun hauetan eta bereziki igandean herri erdian kotxeak ez apartatzeko eskatu dute antolatzaileek, bereziki herri erdian, zinetik Manuel Lasarte auzo bitartean eta Banco Vasconiatik, Elbarren zeharkatuz Manuel Lasarte auzora bitarte.

**gaztelu sol**  
iturgintza  
kalefakzioa • saneamendua • gasa  
948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa  
Calle Lana Ranz  
Huarle Galtzal 7 - 31860 Leitza - 645006478 tel  
Erakuntza Hirigintza Udal-ahokularitza



## BAZTAN

# Ornozko ikasleek beraien ikastetxean hasi zuten urte berria

Gimnasioa eta sarrera moldatu dira Eguberrietako oporretan

ttipi-ttapa

Ornoz-Mugairiko eskola publikoko ikasleak normaltasunez itzuli ziren ikastetxera urtarriaren 9an, Eguberrietako oporren ondotik. Hain zuzen, opor hauek aprobetxatu dira gimnasioan izandako sutearen ondorioz gertatutako kalteak moldatzeko. Jakina denez, abuztuko bestetan erre zen gimnasioa, itxura batean nahita eragindako sute baten ondorioz. Koltxonetak eta PVC edo poliuretanoa bezalako gai kutsakorrek erre ziren. Horregatik, guraso eta irakasleak kezkatuak zeuden, ikasle eta irakasleek kutsadura hori arnas zezaketeelakoan. Osasun Publikoko Institutuari txostena igorri eta honek zenbait lan egitea aholkatu zuen.

#### OBRAK SARRERAN ETA GIMNASIOAN

Aholku horiei segituz, obrak eskolaren sarreran eta gimnasioan



Ornoz-Mugairiko eskolako neska-mutikoak gustora bueltatu ziren ikastetxera Eguberrietako oporren ondotik.

egin dira gehien bat. Gimnasiotik sartzan ziren usaiak ahal bezainbat murrizteko zuloak itxi dira, baita sarreratik gimnasioara ematen zuen leiho borobila ere. Lehendik garbitu ziren zola, pareta eta sabaiak berriz ere sakonki garbitu dira, pikatuz eta margotuz, eta hondatuen zeuden altzariak bota behar izan dituzte.

Klaseak ez eteteko, Eguberrietako oporrak aprobetxatu dira lan hauek egiteko.

#### UDALAK ERAIKINA ORDAINDUKO DU, HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAK EDUKIA

Baztango Udalak bere gain hartu du eraikinean egin beharreko lanak eta Nafarroako Go-

bernuko Hezkuntza Departamentuak ordainduko ditu edukiak berritzeko lanak. Hain zuzen ere, Departamentu honek emana zuen moldaketa lanak egiteko baimena eta Eguberrien ondotik eskolak guttleneko baldintzak beteko ez balitu, ikasleak Elizondoko eskolara gan beharko zirela ere jakinarazi zuen.



#### PERTSONAIA

Garbiñe ELIZEGI

### Lekarozko erizaina Ruandan laguntzaile

Garbiñe Elizegi NARBARTE Lekarozko erizaina Sudango Darfur eskualdeko ospital batean dago, Mugarik Gabeko Medikuek erakundearekin giza laguntza eskainiz. Afrikako herrialde horretan guda eta biolentzia egoera larria bizi dute eta bi milioi lagun baino gehiagok beraien etxeetatik ihes egin dute. Garbiñe Elizegi larraldietan espezializatutako erizaina da eta Darfurko errefuxiatu eremuertako egoerari aurre egiteko ilusioz eta indarrez dago. Afrikara doan eta horrelako misio baten parte hartzen duen lehen aldia da. Eremu hauetan beheitikoak eta arnas arazoak izaten dira ohiko eritasunak.



**ZALDUBI**  
SUKALDEKO MOBLEAK

Martin Lizasoain Adarwa

Etxetresnak · Armairuak  
Komunak · Manparak

Tel: 948 580 562 · Faxa: 948 581 859  
Zaldubia Industrialdea · 31730 IRURITA



ANTXITONEA  
Trinketea

Jatetxea - Ostatur  
Hotela - Trinketea

Menu Borozak

Tel: 948 581 807  
948 581 853

antxitonea@terra.es · Braulio Iriarte karrika · ELIZONDO



## BAZTAN

# Agenda 21eko Foroa urtarrilaren 19an bilduko da Elizondoko Kultur Etxean

Ingurumena eta baliabide naturalak izanen dituzte aztergai

### ttipi-itapa

Ortzegun honetan, urtarrilaren 19an, Baztango Agenda 21eko partehartze foroaren bigarren saioa egingen da 19:00etan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Bilera honetan Baztanen ingurumen, baliabide naturalak eta giza-jarduerek eragindako inpaktuak izanen dituzte aztergai, bertzeak bertze. Deialdi hau, aitzinekoa bezalaxe, udal ordezkariari, teknikariari, elkarte eta herri-taldeetako ordezkariari eta herritarrei luzatu zaie. Halere, deialdia irekia izanik, edonoretor daitekeela ere aipatu nahi izan dute.

### Gorramendi txukuntzeko eskaera

Baztango Udalak, Gorramendin dagoen

Gorramakil kaxkoa txukuntzea eskatu dio Espainiako Aireko Armadari. 1956 eta 1970. hamarkadaren artean Espainia eta Estatu Batuetako base militarra izan zen leku horretan, eta oraindik garai hartako burni eta ormigoi zatiak bista-bistan daude. Horiek lurperatu eta lur eremua egokitzeko 48.000 euroko gastua egin behar dela uste da.

Santi Aldako eta Florentino Goñi zinegotziak Iruñean izan ziren, Defentsako Delegazioan, baina handik gai hori Aireko Armadarrari dago kiola adierazi zieten. Honela, Armadari egin zaio orai eskaera. Gorramendiko kaxkoa garbituz, natur eremua hori berreskuratzeaz gain, Baztanen egin zen Nafarroako Mendi Taldeen bilkuran egindako es-



UTZIANO ARGAZKIA

Timoteo Iribarren eta Mari Carmen Auzkik Urrezko Ertzaiek ospatu zituzten gan den urteko uztailaren 16an Erratzuko elizan. Ondotik, beren familiarekin bazkari ederra izan zuten. Zorionak ezkonberri gazteokir!

karia ere bete nahi du Balleko Udalak.

### Baztandarren Biltzarren ekitaldiak

Abenduan hasitako ekitaldiei segida emanen die Baztandarren Biltzarrak egunotan. Ilbeltzaren 16tik 27ra ifauteri buruzko jardunaldiak egiten ari dira. Larunbatean, ilbeltza-

ren 21ean, «Galtzerdi Suizida» ipuinaren kontaketa eta marrazketa egingen dute Asier Larretxeak eta Juan Angel Perotxenak Elizondoko Gaztetxean. Ilbeltzaren 28an, Arizkongo Gamioxarrean inausketa ikastaroa egingen da eta iluntzean kontzertua izanen da Gaztetxean. Otsailean ekitaldi gehiago izanen dira.

## FLASH

### Munduko Jaiotzen erakusketa igandea bitarte Gorrienean

Arizkongo Bozate auzoko Gorrienean zazpi-garren urtez egin den Munduko Jaiotzen erakusketak izan duen arrakasta ikusirik, urtarrilaren 22a arte luzatzea erabaki dute Xabier Santxotena eta Teresa Lafragua egileek. Larunbatean eta igandean izanen dira erakusketa ikusteko azken egunak, larunbatean 11:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 19:30etara eta igandean goizez bakarrik, 11:00etatik 14:00etara.

### «Baztan Información» boletina argitaratu du UPNK

«Baztan Información» izeneko boletina karrakatu du lehen aldiz UPNKo herriko batzordeak. Gisa honetara, inkesta batean «udal eta herriko gaien buruzko informazio gehiago» behar dela adierazi zuen gehiengoari erantzun nahi omen diote. Lau orrietan hainbat gailantzen dituzte eta Elizondoko zeharbidearen gainkostua EAren «aurrikuspen eskasaren» ondorio dela dio.

**ELIZONDON EREKI DUGUI**

**abartan**

CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA

- ateak • leihoak • kontraleihoak
- manparak
- zeramikak (fabrikako prezioetan)
- kontsumo gutxoko kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO  
Tel. 948 561 152 • 667 264 025 • 696 970 725  
mixxone2terra.es

egoi bardot obregozo arkitektoa

6796-49789 elizondo • braulio iriarte 33,1º D • 31700  
948210963 iruñea • paulino caballero 15,1º A • 31002

**Pierresenea**

OSTATU • JATETXEA

Jaki tipikoak • Etxeko giroa

Iturriz auzoa • Tfnoa: 948 502 043  
ORONÓZ • MUGAIRI

**BURKAITZEA**

• ostatu  
• erretegia

Zugarramundiko bidua, 3 km  
948 599 280 • UROAZUBI

**Eskisaroi**

Jaima Urrutia  
Tfnoa: 948 580 013  
ELIZONDO



ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

# Eguberrietako oporretan hainbat ekitaldi izan dituzte neska-mutikoeek

Ludoteka, eskulanak, jolasak eta txapelketak izan dituzte 24 hurrek

**Margari eta Koro**

Haurren artean gauden udan arrakastatsu suertatu ziren ekitaldiak berriaz antolatu dituzte eguberrietako oporretan. Hiru eta hamalau urte bitarteko bi herrietako haurrek, 24 neska-mutiko guzira, ludoteka gisan antolatuak ziren ekintzak egin ahal izan dituzte abenduaren 26tik 30erat. Ttikienak Urdazubiko aterpean bildu ziren, eta 10 urtetatik goitikoak Zugarramurdiko "Akelarrenean". Goizez ludoteka eta arratsaldean eskulanak, jolasak eta txapelketak egin dituzte.

Hau posible izan da Fani Bonnemaionek bere gain ardura eta antolakuntza hartu duelako. Urdazubiko Ane, Elbeteko Maitane eta Sunbillako Iris ere berekin batera aritu dira hezitzaile lanean. Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalek eta Urdazubiko Michel Courougnon margolariak diruz lagundu dute ludoteka antolatzen.

**Kantu eta antzerkia antzokian**

Eguberriari ongi etorria emateko abenduaren 23an Zugarramur-

diko Ospitaleko antzokian bi eskoletako haurrek izigarriko emanaldi pullita egin zuten. Gure herrietakoaz gain Baztango talde bat ere etorri zen eta denen artean antzerki bat eta kantuak eskeini zizkiguten han juntatu ginen 70 laguner. Ondotik, eta afera ongi finitzeko, txokolata-esnea eta bixkotak izan ziren denetzat.

**Marixan ostatua itxia otsaila arte**

"Marixan" ostatua itxia egonen da otsailaren hasiera arte, beraz, urtarilaren 22an San Antonera egin behar den



Urdazubi Argazkia  
Eguberrietako «neguleketan» parte hartu zuten neska-mutiko gehienak ageri dira argazkian, beraien hezitzaileekin.



Argazkia, Koro  
Eguberrietako ospakizunetan gogotik parte hartu zuten Zugarramurdiko haurrek.

ibilaldirako izen-ematea "Palazioa"n egin behar da.

**Urtexaharreko afariak**

Eguberrietako kontu aipagarriena, aurten (aspaldiko partez) urte-xa-

harreko afariak antolatu direla gure herrietan: Urdazubiko elkarte berriari, Gau-Iñara elkartean 30 lagun bildu ziren, Zugarramurdiko Herriko Etxean 60, eta "Arleun" elkartearen ber-tze 30.

**ZOANSA**  
**MARKA GUZIEN KONPONKETA**  
 Barrieta, 2 - Alkaiaga industrialdea  
**LESACA** (Iazerra Berriak)  
 Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

**MARTIKO**  
 Ahatekietan adituak eta arituak  
 Martiko Prod. Zainak, s.l.r.l.  
 31780 Berro, Nafarroa  
 Tel: 948 625016  
 Fax: 948 625036  
 www.martiko.com

Martikorekin zu zeu sukaldari.



## SENPERE

# Luberriako urtegiko lanek 7,5 miliun euro gostako dute eta 18 hilabete iraun dezakete

Herriko elkarteetako arduradunak bildu dira auzapezaren agiantzen karietarat

Franck DOLOSOR

Heldu den agorrilan, 23 urte beteko dira uholde handiak gertatu zirela Senperealdean. Uholdeak saihesteko urtegi bat eraikitzea aipu da aspalditik baina proiektu honek traba ainitz du eta beraz beranta haundia hartu du.

1983ko agorrilaren 26an, Urdazuri ibaieko urak atera ziren eta kalte haundiak sortu zituzten. Bortz lagunek bizia galdu zuten eta kalteak zazpi miliun euro ingurukoak izan omen ziren. Halako desmasia berri bat saihesteko, 1991ean Urdazurialdeko lau herri (Senpere, Azkaine, Donibane Lohizune eta Ziburu) urtegi bat albatza deliberatu zuten Luberriari, Dantzarineako bidean. 15 urte berantago lanak ez dira hasi. Prefetak lanak baimendu ditu eta obra hori interes publikokoa dela onartzen duen agiria sinatu du. Dena den, ingurumenaren aldeko bi elkarte proiektu hunen



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Aurten ere Bernard Auroy Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusia agertu zen herriko hautetsiek urtarrilaren 6an egin zuten urte berriko agiantzen ekitaldian.**

kontrako errekursoak presentatu dituzte eta lur zati baten jabeak ez du bere ondasuna saldu nahi. Iduriz, hautetsiek espropiazio agindu bat ukan dezakete baina bertze problema bat ere konpondu beharko dute. Europamailan babestuak diren karraldoak daude Lu-

berrian. Mamu hauek tokiz aldatu beharko dira lanak hasteko. Berriki, Donibane Lohizune, Azkaine eta Senpereko auzapezak herriko etxean bildu dira. Urtegiko lanak 2007ko hastapeanean hastea espero dutela jakarazi dute. Urtegia 7,5 miliun euro gostako da, %30 kontseilu

nagusiak pagatuko du, Estatuak eta Akitaniak %25 hartuko dute bakoitzak beren gain eta gainerakoa herriko etxek ordainduko dute. Banaketa hau aspaldi egin zuten hautetsiek eta orain ez dago argi zer gertatuko den Luberriko proiektuaren finantzekin.

## Haurren bahiketaz informatzeko telefonoa martxan da

F.D.

Telefona zenbaki ferde bat martxan ezarri du justizia sailak haurren bahiketen inguruko informazioa bilatzeko. Azken hilabeteetan, Ipar Euskal Herrian haurren bahiketa entsegu ainitz izan da eta gertakari hauek ikertzen dituzte segurtasun indarrek. Telefona berriari gertakari susmagarrien inguruko informazioa bildu nahi dute. Zenbakia hau da 0 800 11 18 91. Zenbaki ferdea denez, deiak urrik dira. Bertzalde, haurrak ongi zaintzea gomen datzen zaio burasori eta irakasleri.

### OZONO-KLINIKA

J. Miguel Itarte doktorea

Tratamentua kirurgiarik gabe

- Hernia diskalak
- Belaun, aldaka, bizkarrezur, zurmioen artrosia, etab...

Merindad de Sangüesa 1, enpresa (Multiopticas ondoan)  
Tel: 948 126750 - BURLATA

ttipi  
ttapa

www.ttipi.info

ttipi-ttapa@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

HERRIKO ETXEO EDINTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
MADAN ETA VÉRONIQUE SARA • TEL. 0559542519

luis  
cestau  
baraibar

arkitekto  
teknikoa

leitza  
607204485

lucésba  
@  
msn.com



SARA

# Herriko artisten lanak ikusgai daude liburutegian

Urtarrilaren 24a arte irekia dago erakusketa eta sartzea libro da

**Laetitia eta Sandrine**  
2006ko urtarrilaren 11tik eta 24a arte Sarako artistek bere lanak liburutegian erakusten dizkigute. Egunero idekia da erakusketa arratsaldeko 3etatik 6ak arte eta igandean goizeko 10etatik goiti 1ak arte eta arratsaldean 3etatik 6ak arte.

Hor ikusten ahalko dira margoak, eskulturak, buzingintzak, Patchwork eta eskulanak. Sartzea libro da.

## Mus txapelketa Edantegian

Herriko Etxeko edantegiak, urte guziz bezala bere mus txapelketa antolatzen du. Lehiaketa hasiko da otsailaren 3an ortziralararekin, arratsko 8ak 30etatik goiti. Izenak ematen ahal dira urtarrilaren 30a aintzin ostatuan edo zenbaki huntara deituz 05.59.54.25.19. Parte hartzeko pertsona bakoitzak 10 euro behar du ordaindu.



ARGAZKIA: LAETITIA

## Gernika deialdia kari landatutako haritza moztu egin zuten, baina berriz ere landatu da

Gernikako deialdia kari 2003an otsailean bertze hainbat euskualdetan bezala, Saran Denen etxearen aintzinean haritza landatua izan zen. Zorigaitzez moztua izan da, balentri txar baten ondorioz. Beraz berriz landatua izan da abenduaren 18an, igandearrekin. Bizi luze bat opatzen diogu.

## Presoen aldeko urtats gaua arrakastatsua

Bigarren aldikotz, Sarako gaztetxeak, presoen alde antolatu duen urtats gaua arrakasta handi bat izan du, 200 bat pertsona hurbildu dira afarira. Gaua giro onean pasatu da. Mi-

lesker lan egin duten pertsona guzietan antolatzaileen partetik.

## Errugbin galdu egin zuten bi taldeek

Urtarrilaren 8an, igandearrekin, Sarako Izarra errugbia, senior taldea, kanpoan aritu da

Saint Martin de Seignanx-en kontra. Bi taldeek galdu dute, erre-serbak 7-3 eta lehenak 19-13. Erran behar da St Martin de Seignanx lehenak direla saikapenean, eta Sarako mutilak partida eder bat egin dutela haien aurka. Txaloak Sarako mutilak!!



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA





## EZKONTZAK

Jose Maria Maritorea Etxebeste eta Maria Arantzazu Berrueta Anglade, Lesaka eta Etxalarkoa, urtarrilaren 7an.  
Jose Antonio Goia Lasaga eta Rachida El Ghayam, Lesaka eta Marokokoa, urtarrilaren 7an.



## SORTZEAK

Iñigo Txoperena Saldias, Igantzakoa, abenduaren 28an.  
Amala Lamothe Arnedo, Zugarramurdi-koa, urtarrilaren 7an.  
Unax Aller Fernandez, Berakoa, abenduaren 20an.  
Andoni Goia Fagoaga, Berakoa, abenduaren 28an.  
Oskitx Madariaga Otegi, Arantzakoa, abenduaren 29an.  
Suharri Madariaga Otegi, Arantzakoa, abenduaren 29an.  
Amaia Olaizola Goñi, Elizondokoa, abenduaren 30ean.  
Manu Elizalde Mitxelena, Zubietakoa, urtarrilaren 1ean.



## HERIOTZAK

Jose Antonio Menta Soubelet, Urdazubikoa, abenduaren 27an, 42 urte.  
Manuela Zubiri Narbarte, Goizuetakoa, abenduaren 30ean, 87 urte.  
Maria Usandizaga Elizondo, Berakoa, urtarrilaren 9an, 88 urte.  
Elena Larramendi Cordoba, Arraiozkoa, urtarrilaren 1ean, 90 urte.  
Jose Telletxea Mindegia, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 3an, 91 urte.  
Fidela Elizondo Ustariz, Arizkungoa, urtarrilaren 4an, 79 urte.  
Eugenia Fernandez Llada, Elizondon, urtarrilaren 5ean, 92 urte.  
Martin Bañares Aguilera, Doneztebekoa, abenduaren 30ean, 82 urte.  
Josefa Altzuguren Agirre, Berakoa, abenduaren 29an, 91 urte.  
Fulgencia Irazoki Irazoki, Donamariakoa, urtarrilaren 3an, 101 urte.  
Josefa Mayora de Golenetxe, Etxalaren, urtarrilaren 4an, 94 urte.  
Jose Manuel Iribarren Telletxea, Doneztebekoa, urtarrilaren 8an, 85 urte.  
Bittori Barandiaran Albisu, Berakoa, urtarrilaren 10ean, 78 urte.



### Gerbasio ALZURI MAIZ

Arantzan hil zen 2005eko abenduaren 20an, 61 urte zituela.

«Goiz-argitze izoztuak mallkoz gaina bete ixilean joan zara gugandik aparte laguntzeko beti prest aitzakirik gabe zikl lanatutako pegoek zutik diraute laister fruitu berriak emango dituzte. Ilardetik Ternidara eta Ibiñza bitarte Ekaitzako ondloek faltan botako zaituzte nahiz eta utzi gaituzten gure artean zande ager bihotzet zaitia, egin haundiarate».

Emazte, seme eta gainerako familiaren izenaz, mila esker momentu samin hauetan gurekin egoteagatik.



### Jose Antonio MENTA SOUBELET

2005eko abenduaren 27an hil zen Urdazubian, 42 urte zituela.

«Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik...»

ZUGARRAMURDI-URDAZUBIKO  
ESKOLAKO IRAKASLEAK



### Fulgencia IRAZOKI IRAZOKI

2006ko urtarrilaren 3an hil zen Donamarian, 101 urte zituela.

101 udaberritan eman digen umorea  
101 udaberritan loratu den landarea  
joan egin da gure amatxi emakame dotorea  
baina bihotzan leku bat dugu beti ziretzat gordea.

ZURE FAMILIA



## PILOTA

# Finalak jokatuz akitu zuten urtea Txarutako pilotariak

Endika Urrutia saldiastarrak Araxesko lau terdiko irabazi zuen

Txaruta elkarteko pilotariak final ezberdinak jokatuz bukatu zuten joan den urtea. Araxesko lau terdiko txapelketan, kadete mailan, Endika Urrutia saldiastarrak finalean 22 eta 11 irabazi zion Beteluko Goikoetxeari. Auhamendiko txapelketan beriz, umen mailan, Arkaitz Untxalo itundarrak errex galdu zuen Burlatako Agirreraren aurka 3 eta 16. Haurren mailan ere herri bereko Oier Be-

reak 9 eta 18 galdu zuen Zizurreko Lukinen aurka. Burlatako txapelketan Arkaitz Untxalok berriro jokatu zuen Agirre burlatarraren kontra baina oraingoan binaka, herrikidea duen Ugaitz Elizalderekin. Agirre beriz Espinalekin aritu zen. Partidua orekatuagoa izan bazen ere, itundarrek beriz ere galdu zuten 14 eta 18.

Nafarroako Kirol Joketan beriz Txaruta el-



LEZIOA ARGAZKIA

Txaruta pilota taldeko pilotariak hainbat herrietako txapelketetako finalak jokatu dituzte. Iruritako Xabi Arraztoak eta Lesakako Mololo Irigolenek Zaldibarko txapelketa irabazi zuten nagusien mailan.

kartekoek ez zuten suerte handirik izan, Euskadiko txapelketan aritzeko baimena bakarrik Urdazubiko Jon Ollok eta Xabier Madariaga urrotarrak lortu baitzuten. Halere, urtea garaipen batekin bukatu zuten.



Zaldibarko txapelketan, nagusien mailan Iruritako Xabi Arraztoak finala irabazi zuen Lesakako Mololo Irigoiene-

kin batera 22 eta 15, Beitia eta Bengoetxearen aurka. Lesakarrak partidu ezin hobea jokatu zuten.

## Bortzirietako eskuz banakako bosgarren txapelketaren finalak jokatuko dira larunbatean Etxalarren

Hamar partida ikusgai izanen dira goizean

A.A.

Larunbat honetan, urtarrilak 21, Bortzirietako eskuz banakako bosgarren Pilota txapelketako finalak jokatuko dira Etxalarko frontoian. Goizeko 9:30etan hasita eguerdira bitartean, hamar partidu ikusialdi izanen dira. Guztira bortz kategoriatako pilotariak arituko dira el-

karen kontra lehiatzen, aurrebenjamin, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailakoak. Maila bakoitzean, adinaren arabera bikategoria egin dira, A eta B. Binakako txapelketan, Irun, Hondarribia, Hendaia eta Oiartzungo pilotariak ere aritzen dira, baina banakakoan, bortz herrietakoak eta Txarutako aur-

keztutako pilotari batzuk bakarrik arituko dira.

Hasieran igandean egitekoak ziren finalak, baina San Anton eguna denez, egun bat aitzintzea erabaki da.

ARTXIBOKA

Pilotari gaztetxoak lehiatzen ikusteko aukera izanen da larunbatean Etxalarren.





**PILOTA**

## Jon Apezetxea goizuetarrak 17 urterekin debutatuko du profesionaletan Asperekin

Enpresak antolatu duen bigarren mailako binakako txapelketan arituko da urtarrilaren 30etik aurrera

**A.A.**  
Jon Apezetxea aurrelari goizuetarrak urtarrilaren 30ean egingen du debuta profesionaletan Tolosako Beotibar pilotalekuan, bigarren mailako eskuz binakako txapelketaren barrenean. 17 urte ditu (18 beteko ditu apirilaren 12an) eta profesionaletan hasten den pilotari gazteenetakoa da, Beloki, Olaizola II edo Bengoetxea VI.ak, adibidez, 18 urterekin estreinatu

baitziren. Jon Apezetxeak Auxkinekin bikote egingen du Aspek antolatu duen bigarren mailako txapelketa honetan, Beraiekin batera, Josu Baleztena eratsundarra eta Galarza VI, Berasaluze IX eta Zubieta eta Iñaki Larraidelesakarra eta Arizmendi arituko dira. Ligaxka moduan jokatuko dute eta bi lehenbizikoaren artean finalerdi moduko partida bat jokatuko dute. Partida hau

irabazten duen bikoteak, Asegarcek antolatu duen Promozio Txapelketako irabazlearen kontrara arituko da.

Jon Apezetxeak adierazi duenez, «debutak berez ilusio handia egiten dit, nere ametsa betetzen delako. Baina gainera bigarren mailako txapelketa jokatu behar dut eta hori izugarria da. Eskertzekoa da enpresak nigan izan duen konfidantza, txapelketan sartzerakoan».



Jon Apezetxeak txapelketa jokatzuz hasiko du profesionaletako ibilbidea

**HERRI KIROLA**

## Eskualdeko ordezkariarik gabe abiatu da Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketa

Lesakako Beti Gaztek ez du talderik aurkeztuko

**A.A.**  
Asteburu honetan abiatu den Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketan ez da eskualdeko ordezkariarik izanen. Izan ere, azken urteetan txapelaren borrokan izan den Lesakako Beti Gazte taldeak ez aurkeztea erabaki du. Azken urteetan,

Abadiñok erabiltzen zituen oinetako eta materialekin kexu agertu dira behin eta berriz lesakarrak eta epaileek eta federazioak ez dute erantzunik eman. Beritze aldetik, nazioartean ezin dute lehiatu eta horrek motibazioa kendu die Lesakako tiralariet. Nazioarteko Federazio-



Nazioartean lehiatu ezinak eta Euskadiko txapelketan azken urteetan izandako gorabeherek eragina izan dute Beti Gazteko tiralarien erabakian.

ak Espainiaren izenean lehiatzera behartu nahi zituen euskal taldeak eta Euskadiko Federazioak ez zuen hori onartu.

Kontuak kontu, 1990. hamarkadan goma gaineko sokatirak eskualdean izan zuen indarra apaltzen joan da eta tal-

derik gabe gelditu gara. Aresok lur gainean segitzen du, baina sokatirak etorkizun beltza dauka gurean.



# AGENDA

## egunez egun

### ZINEMA

#### LEITZA

Otsailaren 3 eta 5ean «Paradise Now» filma eskainiko da zineman. Otsailaren 10 eta 12an «Flores Rotas» filma eskainiko da zineman. Otsailaren 17 eta 19an «Una historia de violencia» filma eskainiko da zineman. Emanaldiak ostiraletan 22:30etan eta igandetan 19:30etan.

### MENDI IRTEERAK

#### LESANA

Urtarrilaren 22an San Antonera erromeria antolatuta du Beti Gaztek, 8:00etatik aitzinera. Urtarrilaren 29an Sunbillatik Mendaurrera mendi itseira antolatuta du Beti Gaztek, 7:30etan Plaza Zaharretik abiatuko dira.

### ANTZERKIAK

#### BERA

Urtarrilaren 22an Kukubiltxo taldearen «Argixo eta Dir-Dir» antzezlanaren ikusgai Kultur Etxean 18:00etan. Antolatzailea: Nafarroa Oinez 06.

### SOLASALDIAK

#### ELIZONDU

Urtarrilaren 20an «Karlismoa gaur, zertarako?» solasaldia eskainiko da Arizkunengan, 20:00etan. Nafarroako Biltzar Karlistik antolatua.

#### LESANA

Urtarrilaren 19an «Gure seme-alaben sexualitate eta afektibitatea» hitzaldi-talerra eskainiko du Marta Aristuk 17:00etan Irain ikastetxean. Urtarrilaren 26an «Gure seme-alaben sexualitate eta afektibitatea» hitzaldi-talerra eskainiko du Marta Aristuk 17:00etan Irain ikastetxean. Antolatzailea: Irain Guraso Elkarte.

## TELEBISTAKO TXOKOA



HEMEN DIRA IÑAUTERIAKI!

# Joaldun, mozorro eta karroza besta Ttipi-ttapa Telebistan

Iñauterien data ofiziala martxoaren hasieran da aurtengoan, baina jakina da gure inguruan behin Errege eguna pasatuta leku aunitzetara ailegatzen dela mozorro, karroza eta atsoguratuak besta. Erraterako, Eratsunen eta Orabidean ilbeltza hasieran egin zuten. Orain, ttipi-ttaparen eremuan ezagunen egin diren iñauterien txanda ailegatuko da: Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunen pulunpa soinuak, Sunbillako karroza ikusgarriak eta Leitzaoko atsoguratuak joan-etorriak asteburu honetan eta hurrengoan izanen dira eta ttipi-ttapa telebistak, urtero bezala, iñautere egun hauen berri emanen di-

zue. Hurrengo igandean, urtarrilaren 29an, urtetik urtera indartsuagoa eta inudimentsuagoa suertatzen den Sunbillako karrozen desfilearen irudiak grabatuko ditugu. Dena den, igandea azken eguna dute Sunbillan eta aitzinetik egiten dutenaren berri ere izanen duzue telebistan. Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldun eta mozorroek, hurrengo astelehen eta asteartean eginen dituzte joan-etorri jendetsuenak. Bisitari kopuru izugarria biltzen dute ekitaldi hauek eta aunitzetan ezin izaten da xehe-tasun guzieren berri norbere begiekin bildu. Horretarako aukera ederra, ttipi-ttapa telebistan.

## DISKAK



«Xoriek 17»

MIKEL LABOA

ELKAR, 2005

1996az gero, Mikel Laboa kanta berriak egiten hasten da disko berri bat osatzeko ideiarekin. Kanta hailetako batzuk beste lan batzuekin batera argitaratu ziren Gernika-Zuzenean 2 izenburuko CDan. 2001garren urtean, Bernardo Atxagak aditzera eman zion txoriei buruz egiteko disko berria. Ideia hura ona iruditu zitzaion Mikeli: izan ere, ez al ziren, bada, izan txoriak ordura arte Mikelen kanta aunitzen gaia edo pertsonaia nagusiak? Garai hartan, ordea, beste kanta batzuk lantzen ari zen Mikel, eta txori haiek CD honen Xoriek parte bilakatu ziren, nahiz eta txoriak, geure buruaren sinbolo bezala, non edo han agertzen diren. Azkenean, CD honen Xoriek 17 izenburua hartzen du eta hiru partean zatitua ageri da: In Memoriam, Xoriek eta beste lau kanta nagusi solte.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(Abenduaren 30etik urtarrilaren 5era bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



Zerrikumea  
(19 kilo): 37,50 € (=)

Zerri gizena  
1,055 € kiloak. (=)

Zerramak:  
0,450 € Kg/bizirik. (=)

### BEHIKIA



Aretze gizenak:  
Idixkoak: €/kg. Kanakal  
Extra 3,72 (+0,03)  
1.koa 3,49 (+0,03)  
2.koa 3,36 (+0,03)  
Urruxak: €/kg. Kanakal  
Extra 3,82 (+0,03)  
1.koa 3,61 (+0,03)  
2.koa 3,43 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanakal pisatzen duten aretzeenak dira.  
Aretze tikiak  
(15 egun ingurukoak):  
Aretze mestizoak:  
urruxak 210,00 (=)  
idixkoak 252,00 (+6,00)

Aretze nabarrak:  
urruxak 175,00 (=)  
idixkoak 220,00 (=)  
Zaldikoak: €/k  
Sortuberiak: 2,95/3,01  
Zaldi-behorak: 1,57/1,87  
Bildotsak: €/k  
6-8 kilokoak: 7,60/7,80  
8-10 kilokoak: 5,90/6,50



# AGENDA egunez egun

## JAKIN BEHARREKOAK

# Interes tipoen igoeraz eta zorpetze handiaz ohartarazi du Irachek

Arazo ekonomikoak saihesteko bertze proposamenak ere egin ditu

Irache kontsumitzaile elkarteak hipoteka bat kontratatzerakoan eta zorpetzeko orduan kontu handiz ibiltzea aholkatu die kontsumitzaileei. Ez dute bakarrik gaur eguneko gastuetan pentsatu behar, interesak igoiko balira edo beraien ahalmen ekonomikoa jautsiko balitz, maionbra-tartea utziz.

Interes tipoen igoerak ekonomia ahulenetan arazo larriak sortzen ditu, bereziki familia gazteenetan, hipoteka ordaintzeaz gain, autoa, altariak, haurren eskola... ordaindu behar dutenean. Gaurko interes tipoen igoerak, maiatza, ekaina edo uztailean erribisatzen direnean, hilabetero 45 euroko igoera ekar dezake, 25 urterako 120.000 euroko hipoteka arrunt batean.

Ez da Irache Kontsumitzaile Elkarteak



Interes berriekin hilabeteen 45 euroko igoera izan daiteke hipotekan.

2006rako aurrikusi duen arazo bakarra. Gazteendako etxebizitzaren arazoa ere kezka-iturri da eta horren aitzinean, etxebizitzaren egiazko premia neurtu eta lurra lortu eta eraiki ahal izateko behar diren baliabideak jartzea eskatzen du. Horrelako etxebizitzak arrazoian lortzeko moduetako bat alokairua bultzatzea dela uste du Irachek. Errate baterako, Iruñean 20.000

etxebizitza hutsik omen daude eta horiek inbiliarria merkatuan sartzea proposatzen du, etxebizitza berriaren beharra murrizteko.

**IPCA KONTROLATU**  
Inflazio handiaren kontrola izan behar du Nafarroako Gobernuaren lehentasuneko lana, Iracheren ustez. Petroleoaren eta gasolinaren prezioen igoerak, argindar-tarifen eta interes tipo-

en igoerarekin batera, arazolariak sorditzazkete ekonomia ahulenetan. Hori ez gertatzeko, arlo hauetan kompetentzia bultzatu beharko litzateke.

Farmaziako gastua murrizteko, berriz, sendagai generikoen aldeko apostua egiten dute Irachetik, marka duten sendagaiak bezain eraginkorrak eta ziurrak izanik, hagitzez merkeagoak dirrelako.

## LIBURUAK



Lau ipuin Matteomigliar

**KARLOS LINAZASORO**

ELKAR, 2006

Matteomiglia herri zelebrea da, idazle irudimentsu batek bere ibilaldietan eta «egonaldietan» sortutakoa. Lau ipuin hauetako eszenarioa Matteomiglia da, hemendik aurrera irakurle gazteen artean ezagun egingen dena. Herriko postontzi guztietatik itsasoa hasi da irtetzen eta komediak izanzen ditu postariak. Panito lorezainak parkean ikusi zuena imajinatzeak ere lanak ditu. Bertzalde, ez da ohikoa udalburuko funtzionario poeta bat aurki-

tzea ere. Eta Gilberto ehiztari mutilzaharra? Egia ote da Parisko Marguerite panpoxak maitasun gutun bat bidali zio-la? Hauek eta kontu gehiagoren berri izanen du irakurleak liburu honetan. Karlos Linazasoro tolosarrak irudimen ereroz kargatuta eskaintzen dio irakurleari liburu fresko eta original hau. Eta Jokin Mitxelena-ren marrazkiek areagotu egin dute testuaren freskotasun hori. Gure irudimena haizeberritzeko liburua.

### INAUTERIAK

#### SINBILLA

Urtarrilaren 27tik 29ra Xehetasunak erdiko gehigarrian.

#### AMUTZ-ITUREN ZUBIETA

Urtarrilaren 26tik otsailaren 1era Xehetasunak erdiko gehigarrian. Otsailaren 4an kontuen bazkaria eta zaharren afaria.

#### LEITZA

Urtarrilaren 21etik 24ra. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

### IPUIN KONTALARIAK

#### ELIZONDO

Urtarrilaren 21ean «Galtzerdi sulzida» ipuinaren kontaketa eta marrazketa, Asier Larrebrea eta Juan Angel Perotxenarekin.

#### BERA

Urtarrilaren 27an Aitona Balentin (Andersen) ipuinaren kontaketa 18:00etan Liburutegian.

### LIBURU AURKEZPENA

#### BERA

Urtarrilaren 27an Jon Maiaren «Riomundo» liburuaren aurkezpena 20:30etan liburutegian, Espidobaita elkarteak antolatua.

### ERAKUSKETAK

#### BERA

Urtarrilaren 23tik 29ra Andersenek idatzitako ipuinetan oinarritutako erakusketa liburutegian, astelehenean ortziraleran 15:00etatik 21:00etara.

### JARDUNALDIAK

#### ELIZONDO

Urtarrilaren 16tik 27ra ikastei buruzko jardunaldiak antolatu ditu Baztandarren Biltzarrek.



Bel horretan argakia jartzeko 8 € beharriko behar da.  
Ttipi-ttapa bereziki ena argakia da.  
Orain argakia gero argakia da.  
8 € Muga Hurrengo 3000 0000 53 OTORRORREKI erantsen sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIAN IZANEN DUTE!

Bel horietan partikular,  
profesional eta merkatarien  
informazio eta zerbitzuen berri  
ematen du ttipi-ttapa ez du  
bere gain hartzen argakietan  
diren argakien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen  
erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Ebe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Talerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galduta / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ADOS

**• ELIZONDO.**  
- Erakuntza berriko azken pisua apartakalearekin salgai.  
- 2. eskuko apartamentu pisu eta apartamentuak salgai.  
- Erakuntza berriko azken pisua apartakalearekin salgai.  
- 2. eskuko apartamentu, pisu eta unifamiliarra salgai.  
• **DONEZTEBE.**  
- Pisua erosten dira.  
• **ITUREN.**  
- Erreforma behar duen etxea bere baratzearekin salgai.  
• **BERA-LESACA.**  
- 2. eskuko pisua eta lur eremuak salgai.  
• **BERA-LESACA-SUNBILLA.**  
- 2. eskuko pisua eta lur eremuak salgai.  
• **ELIZONDO-DONEZTEBE-BERA-LESACA.**  
- Pisua erosten dira.  
• **BAZTAN.**  
- Hainbat lur eremu erakigari salgai.  
**BAZTAN-BIDASOAN.**  
baseri, borda, etxeak, pisua eta lur eremuak salgai.  
948 451 841 / 948580705  
www.ados-inmobiliaria.com

## ANZABAL

Santiago 15 - **ELIZONDO**  
Tfnoa: 948 580804  
anzabal@anzabal.com

### BAZTAN-BIDASOAN

Lur, etxe, baseri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.

### BAZTAN-BIDASOAN

Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

## Lurra erosten dira. Permutak ere egiten dira.

ASGEIN IRUN  
628 725328

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

LEITZA. Pisua salgai. = 667 851039.

DONEZTEBE. Pisua salgai. = 948 451977.

### ETXEBIZITZAK

#### 102 Erosi

BAZTAN. Borda bat erosten nuke Baztango inguruetan. = 687 530298.

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan eman

SUNBILLA. Pisua errentan ematen da. Mobilizatu. = 948 450767.

DONEZTEBE. 101 m<sup>2</sup>ko pisua errentan eman nahi da. Pisu berria eta altzarekin. Garajea ere badu. = 660 916833.

ALMANDOZ. Pisua errentan eman nahi da, kalefakzioarekin, amuebitua. = 948 585008 (jarraitsetan).

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

BERA-LESACA. Pisua errentan hartuko nuke. = 665 753486.

BERA-LESACA. Pisua errentan hartuko nuke. = 647 840343.

### ETXEBIZITZAK

#### 105 Etxe konpartituak

ELIZONDO. Pisua konpartitzeko eskaintzen da. = 620 778953 (eguerditan).

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 109 Errentan eman

LESACA. Lokal komertziala errentan ematen da Bittiria kalean. = 696 193848 (20.00etatik aurrera deltu).

LESACA. Lokal komertziala errentan ematen da Bittiria kalean. = 696 193848 (20.00etatik aurrera deltu).

LESACA. Bi garaje plaza errentan ematen dira Bittiria kalean. = 696 193848 (20.00etatik aurrera deltu).

### LURRAK/ORUBEAK

#### 112 Saldu

IGANTZI. 8.500 m<sup>2</sup>ko mendia salgai. Haritzekin landua. 12.000 eurotan. = 619 845859.

## Lan bila zabilta?

### LAN ESKAINTZA

#### LANGILEAK

Obrak, gidariak, zaborra, garbitasuna. Udalentzerako behar dira.

PEONIAK eta OFIZIOKO LANGILEAK ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENIMENDUA

- Igeltseroak
- Elektrizistak
- Iturginak Orotogia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00

### LAN ESKAINTZA

#### GARBITZAILEAK

Lanpostu finkoak:

- Eraikin publikoak
- Karaberoak
- Ospitalak

Soldata: 900 € Orotogia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00

#### SUKALDE LAGUNTZAILEA

- Sukaldariak
- Kamareroak
- Lanpostu finkoak
- Orotogia: Batatik 15etara

Presta zaitetz. Informazioa dohan.

**948 199 596**

### LURRAK/ORUBEAK

#### 113 Erosi

BAZTAN-BIDASOAN. Mendi aldean 30.000-80.000 m<sup>2</sup> inguruko lur eremuak erosten nuke. Bordaren bat badu ere berdinda. = 670-415825 (halki).

### LANA

#### 301 Eskariak

Emakume bulgariarra eskaintzen da etxeak garbitzeko. Gaztelania hitz egiten du. = 636 039255.

Etxeko lanak, agureak eta haurrak zaintzen ohituratuta, 29 urteko neska eskaintzen da. = 617 902072.

Erizain laguntzailea (auxiliar) eskaintzen da edozein motako lanean aritzeko. = 610 402190.

Neska gazte euskalduna prest egongo litzateke zeharrik eta haurrak zaintzeko, etxe lanak egiteko ordua, haurrak eskolatik jasotzeko, ikasketetan laguntzeko... ikasketak euskaraz eta norberaren kobarekin. = 615 782292.

## BORDA pladur lanak

- Erronformak
- Dekorazioak
- Sabai modularrak

bordapladar@telefonica.net  
Tel-Fax: 948 637 540 609 477 277

## ARANTZA Zurgindegia.....

• Klase guztetako zurgin lanak  
• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

José Ángel Jourd'hean  
Tel. 948 634 948 447 919 144  
Gertzeña ARANTZA

### LANA

#### 302 Eskaintzak

ETXALAR. Etxalarko Bontia hoteloko harreraren asteburuetan lan egiteko pertsona bat behar da. = 609 402229.

DONEZTEBE. Bixen ostatuan asteburuetan garbiketako egiteko pertsona bat be-



har da. ☎ 948 450383.

**CEDERNA-GARALUR.** Lan orientatzailea kontratatu nahi da 5 hilabeterako. Kurrikuluma urtarilaren 20a baino lehen aurkeztu Alkaiagako egoitzan. ☎ 619 829289.

**SUNBILLA.** Udal idazkaria kontratatu nahi da. Kurrikuluma urtarilaren 19a baino lehen aurkeztu. ☎ 619 829289.

**Haurzaindaria,** hezitzaileak. Haur eskoletan abudo sartzeko. ☎ 948 199596.

**Gidariak, txoferrak.** Abudo sartzeko Nafarroako Diputazioan. Kontratu mugagabea. ☎ 948 199596.

**Laborategia.** Ospital eta Nafarroako Gobernurako lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Ohar garrantzitsua.** Elberritasun fisikoren bat baldin baduzu, lortu lanpostu finko bat. %5a erreserbatua. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukalde laguntzailea.** Sukaldariak, kamareroak. Lanpostu finkoak. Ordutegia: Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak:** igeltsuak, elektrozistak, iturginak eraikin pu-

**TALLERES SANTESTEBAN**  
☎ 948 450282 • DONEZTEBE

**KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-18 HILABETEKOAK)**  
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace, Sedan, Megane Grand Tour.

**ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK**  
EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK ETA QUAD-AK, GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIA EGINDAKO ERREMOLKEAK

**BOAN TALLERRA**  
autoen mekanika eta elektrizitatea  
948 630 623 BERA

bliken mantenimendurako. Astelehenetik ortziralerara, Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Langileak.** Obrak, gidariak, zaborrak, garbitasuna. Udalekretarako behar dira. ☎ 948 199596.

**Premiazkoa.** Haur zaindaria eta haur eskoletarako hezitzaileak behar dira. ☎ 948 199596.

**Correos.** Bete behar dira: banaketarako, sailkatzeko eta bezeroari arretarako lan-

**SAMPI ARAGON ZOANSA**  
Ser Bio TD (Julen), Ser Bio gailu, Aut At TD, Aut At 18T, Ser TD (Julen), Ser Tolo TD, Ser Tolo gailu, Ser Leo (Julen), Conco Leo S, Conco ZI TD, Conco Leo Proco, Lolo (Julen), Sasi (Julen) gailu, Modelo Motora 1.1 (18 TD eta 21 TD)  
☎ 948 450282 • DONEZTEBE, BERA

**MENDAUR MOTOR**  
☎ 948 450331 • DONEZTEBE  
Bigarren eskuko kotxeak: Mercedes DD 1-3 an, Volvo 1-3 an TD, Opel Astra, Maverick, Coloper 1 an, Grand Vitara 1 an, Peugeot Partner, Ford Escort TD, Opel Zafira eta Opel Agila, SUZUKIAK ETA YAMAHA AUKERAN

**GANIX**  
Tallerra  
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea  
FIAT serbitzua  
Inerlanden, 9 - 948 630 669  
BERA

gileak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haurzaindegiak:** Bete behar dute haur zaindaria eta hezitzaile lanpostuak. Ordu-tegi intentsiboa. ☎ 948 199596.

**MOTORRA**  
**501 Salerosketak**

Peugeot scooter motoa, 50 cckoa salgai. Egoera onean. ☎ 600 991583.

Citroen ZX autoa salgai. NA-

AM matrikuladuna. Arras egoera onean. ☎ 680 343337.

**Ford Escort** autoa salgai, NA-V, ITV pasatu berria. Egoera onean eta merkea. ☎ 948 630945.

**Renault Laguna** autoa salgai. 71.000 km, lau airbag eta klimatizadorearekin. ☎ 639 125046.

**Opel Frontera Sport** TD 115 zaldikoa salgai. 1999koa. Egoera oso onean. 90.000 kilometro. ☎ 638 616075.

**Peugeot 206 HDI** autoa salgai, NA-BC matrikuladuna. ☎ 639 104462.

**Volkswagen Golf 1900** TDI 4 Motion autoa salgai, sei abiadurakoa. 110.000 km eta 2000. urtekoa. ☎ 690 116072 (Ruben).

**Volkswagen Golf 1.6** gasolina autoa salgai, BPG matrikuladuna. Egoera onean. ☎ 653 015677.

**ANIMALIAK**  
**601 Emateko**

Bost xakurkume hagtz politak oparitzen dira. ☎ 637 399197.

**ANIMALIAK**  
**602 Salerosketak**

Ahuntzak saltzen dira Lesakan, bere kumeeekin eta kumerik gabe. ☎ 667 766262.

**30 ardi** saltzeko, 60ko ardatetik aukeratzeko. ☎ 639 981076 (21etatik 23etara).

**25 ardi emari** saltzeko. ☎ 630 137257 (17.00etatik aitzinera).

**DENETARIK**  
**702 Salerosketak**

Yamaha pianoa salgai, Hagtitz gutti erabilia. ☎ 686 437953.

**MaxiCoxia** salgai, Bebe Comfort Creative markakoa. Estreinatua gabea. Dendan baino merkeago salduko genduke. ☎ 676 789286.

**Lizar eta haritz amerikano** landareak salgai. ☎ 635 201059 (21.00etatik aitzinera).

**Solarium-a,** peluikerko materiala eta muebleak salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 670 218232 edo 652 746800.

**Traktorentzat** goldea salgai. ☎ 948 627541 edo 697 382252.



**Bidali**  
**ttipi-ttapa**  
herritik kanpo bizi diren  
lagun edo familiakoei

☎ (+34) 948 635458





Gaztelako **YAZA GONZALEZ GAMIO** 2 urte bete ditu urtarilaren 13an. Zorionak eta muzu handi bat familaren partetik.



**PABLO, VICTOR** eta **LUIS**ek, urteak beteko dituzte urtarilaren 17, 18 eta 19an. Zorionak familaren partetik. Aupa Oletse!!



Cascanboko **VICTOR**ek urtarilaren 18an urteak beteko ditu. Zorionak gurasoen partetik. Jabier eta Maite.



**RUBEN ZAPIAIN** beratarik urtarilaren 19an 18 urte beteko ditu. Zorionak familaren partetik.



**HUGO ETXEBARRIA** beratarik 8 urte beteko ditu urtarilaren 20an. Zorionak guspeton bere altan ehizko kuadrilaren partetik.



**UXUE ZELAIETA** beratarik urtarilaren 17an 8 urte bete ditu. Zorionak Berasko familaren partetik. Muzu haundi bat.



Donamarko **XANTI JORAJURA** eta **KONTXI BALEZENA** beratarik urtarilaren 24an 25 urte beteko dituzte etxondurik. Zuen guraso, anai-komak eta loba gutzien partetik zorionak. «Eguna ongi pasa eta lan gutxi egon».



Urtarilaren 16an urte bat bete du **UGAITZ ALDEBE TELLETREAK**. Zorionak famli gutziaren partetik eta bereziki Izaronen partetik. Muzu bat.



**IRAI GILENEA** beratarik 7 urte bete ditu urtarilaren 18an. Zorionak eta zaipi muzu familaren partetik.



**IZARD IPARRAGIRRE** beratarik 3 urte beteko ditu urtarilaren 21ean. Muzu haundi bat etxeekin partetik.



**IRAI MARTIKORENA** beratarik 12an 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez Aunitzko familaren partetik. Muzua haundi bat.



**IORTZ ARRUÑUA** beratarik 6 urte beteko ditu urtarilaren 24an. Aunitz urtez eta muzu haundi bat Iker, atabak eta arri-txorien partetik.



Arizkungo **MIREN MARITORENA** eta Elzondoko **IRAI ATXA** urteak bete dituzte urtarilaren 15ean eta 22an. Zorionak eta muzu haundi bera. La «Kuadrila»-ren partetik. Kasia!!



**UXUE ZELAIETA** beratarik eta **AMARA ZAMORA** beratarik 8 eta 2 urte beteko dituzte urtarilaren 17 eta 25ean. Aunitz urtez eta zorionak Berasko familaren partetik. Muzu aunitz.



**IRAI MARTIKORENA** beratarik 12an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muzu pilo bat guraso eta aton-amoraren partetik.



**EGOITZ BALEZENA** beratarik 17an 4 urte beteko ditu. Aunitzko familaren partetik muzu haundi bat potoko.



**XABIER BIDAUR** beratarik 6 urte beteko ditu urtarilaren 25ean. Zorionak eta muzu aunitz familia gutzien partetik.



**OIER ZAPIAIN** beratarik 7 urte bete ditu urtarilaren 14an. Aunitz urtez eta muzu bat atxa, ama eta Naroaren partetik.



**IZARD LARRAÑAGA** beratarik 4 urte egiten ditu urtarilaren 20an. Zorionak eta muzu potoko bat Ugaitzen partetik.



**EGOITZ BALEZENA** beratarik 17an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muzu bat atxa, ama eta bereziki Otairen partetik.




**IKER** eta **AMA OSLUA** beratarik urtarilaren 20an eta otsailaren 3an 2 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak eta aunitz urtez familia gutzia eta bereziki atxa eta amaren partetik.



**IORTZ ARRUÑUA** beratarik urtarilaren 24an 6 urte egiten ditu. Zorionak alauti-amaitzen partetik.

**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,28 EUROKO 13 SEILU TTAPI-TTAPAKO HELBIDERA:**



**ttipi-ttapa**  
Andutzeta, 12  
31760 ETXALAR

**Urtebetetzeko argazkiak Internet-en ere**

[www.ttipi.info](http://www.ttipi.info)



# AMAIYR

Rosa Seminario 13 • DONEZTEBE • 948 450 400



**SUKALDE ERAKUSKETA:**  
 Modelo berriak: rustikoak, modernoak eta praktikoak  
 Entzimerak, silestone, granito corian...  
 Etxetresna nazionalak eta alemanak  
**PROIEKTU ETA ERREFORMAK**



*Estilo ugariko moleak*

**LARUNBAT GOIZ  
 ETA ARRATSALDEZ IREKIA**



## ORDOKI

altzariak



ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA




# Liderrak gure eskualdean

eta bigarrenak  
**Nafarroa Garaiko Mendialdean**  
dauden 111 udalerriak kontuan hartuta



## IRAKURLE KOPURUAK



## SEXUAREN ARABERA

gizonak (9000)  
emakumeak (8000)



## ADINAREN ARABERA

14-20    46-55  
21-25    56-65  
26-35    >65  
36-45



## IKASKETA MAILAREN ARABERA

Lehen ikasketak  
Lanbide Heziketa  
Batxilergoa  
Unibertsitatea



DATU  
ITURRIA:

CIES 2005  
2. azterketa aldia